

Otxandioko hilerrian ez dute hobi komunik aurkitu

Otxandioko hilerrian egindako prospekzioetan, 1936ko bonbardaketan hildakoen hobi komun baten bila ibili dira, baina ez dute aurkitu. Hobi komun baten ordez, enterramendu indibidualak agertu dira. • 2-3

Hiru omenaldi eta oroimen ekitaldi egingo dituzte asteburuan Durangon

Oroimena | Bizi zirela, nork bere arrazoiengaitik, euren lorratza utzi zuten gizarteko hainbat esparrutan, eta asteburu honetan omendu egingo dituzte. Gerediaga Elkartek elkarteko kide izandako Jose Mari Uriarte gogoratuko du gaur, hil zela urteurrena betetzera doanean. San Jose Jesuitak Ikastetxeak Juanjo Moreno oroituko du domekan, Durangaldeko hezkuntza, kirol eta kultur arloko ordezkariak parte hartuko duten ekitaldian. Azkenik, egun bererako, domekarako, Durangoko Udalak Boni Macarron eta martxanterak omentzeko ekitaldia antolatu du. Andra Mariko elizpean izango da. Gainera, Boniren margolan bat aurkeztuko dute, elizpean ipiniko dutena behin betiko.



JOSE MARI URIARTE

Ogibidez maisua izan zen arren, afizios argazkilaria, historiazalea eta idazlea izan zen Uriarte. Gerediagak antolatutako ekitaldia San Agustin Kulturgunean izango da. Horrez gainera, Astola aldizkarian argitaratu zuen erreportajearen erreplika ipiniko dute Arripozue-tako presa ondoan. • 4



JUANJO MORENO

Juanjo Moreno San Jose Jesuitak Ikastetxean irakasle aritu zen urte askoan, eta Jesuiten Etxea etorki-nentzako harrera zentroko bul-tzatzaile aitzindaria ere izan zen. Saskibaloia munduan ere lorratz handia utzi zuen. Hori guztia aint-zatesteko, ekitaldia egingo dute Jesuitak ikastetxean, domekan. • 27



BONI MACARRON

Boni Macarronek gozoki postu bat izan zuen urte askoan Andra Ma-riko elizpean. Herriko irudimen kolektiboko ikur bihurtu zen. Udalak domeka goizean egingo duen ekitaldi baten bitartez, Ma-carron eta elizpean egoten ziren beste martxanterak gogoratuko dituzte. • 5

Durangoko Avis ekoiztetxearen 'Natura bizi' dokumentala estreinatuko dute

Kultura | Avis ekoiztetxe durangarrak egindako 'Natura bizi' dokumentala ikusgai egongo da Zugaza zineman asteburuan. Ikus-entzunezko lanak bidaia bat proposatzen du Euskal Herriko biodibertsitatean. • 25



DURANGO KABILDUOSTE

Proiektu berria San Roke auzoan, erdigunetik pauso batera.

INFORMAZIOA


Zure etxean zaude Estás en tu casa

946 46 20 41
www.sukia.com



Hondeamakina Otxandioko kanposantuan hobi bat egiten martxoaren 30ean, prospekzioak egin zituzten lehenengo egunean.

Otxandioko hilerrian egindako indusketetan ez dute aurkitu bonbardaketan hildakoen hezurak batzen dituen hobi komunik

Hobiratze indibidualak agertu dira, baina Aranzadiko adituen ustez ehorzketa mota horiek ez dira bonbardaketa-oste batean egingo lirartekeenak

OTXANDIO • JOSEBA DERTEANO

Otxandioko kanposantuan prospekzioak egin dituzte, 1936ko bonbardaketan hildakoak han lurperatuta dauden jakiteko. Aranzadi elkarteak egindako ikerketa batean oinarritu dira indusketak bertan egiteko. Hobi komun bat aurkitzea zen helburua; gorpu askoren hezurak toki jakin batean pilatuta eta nahastuta egongo ziren gune bat, hain zuzen ere. Horixe izango zen adierazlerik agerikoena hezurak bonbardaketan hildakoenak zirela baieztatzeke. Baina ez dute horrelakorik aurkitu. Indusketetan ez da hobi komunik agertu.

Horren ordez, hobiratze indibidualak aurkitu dituzte. Hau da, banan-banan eta bata bestearen ondoan, ilaran, zeuden lurperatuta gorpuen hezurak; gainera, kasu batzuetan, hilkutxen arrastoak —iltzeak, esaterako— zituzten inguruan. Aranzadiko adituen ustez, aurkitutako horiek ez dira bonbardaketa-oste batean egingo lirartekeen enterramendu motak. "Esaterako, oso arraroa litzateke hainbat hilkutxa prest izatea hildakoei lurra emateko. Azken batean, ezusteko bonbardaketa bat izan

zen, herritarrek ez zuten espero", azaldu du Jimi Jimenez Aranzadiko ikertzaile eta arkeologoak.

Horiek horrela, Eusko Jaurlaritzak eta Aranzadik ez dute arrazoirik ikusi enterramenduetan aurkitutako gorpuen identitatea aztertzeke. Horregaitik, gorpuak eta hezurak bere horretan utzi eta hobiak berriro lurrez estali dituzte.

Otxandioko udal gobernu taldeak bestelako ikuspuntua du aurkitu diren enterramendu indibidualen gainean. "Grabatuta daukagun testigantza batean, hildakoak lurperatzen ibilitako gizon batek argi eta garbi dio ezagunak ziren pertsonak banan-banan eta bakoitza bere lekuan lurperatu zituztela, eta besteak denak batera, zenbait lekutan". Gaineratu dutenez, "herri txikia izanik, lagunak eta oso hurbilekoak ziren hildakoak, eta, gure ustez, zentzu osoa dauka eurak duintasunez ehortzeko saiakerak".

Udalak diptiko bat landu du prospekzioen inguruko informazioa herritarrei helarazteko. Diptiko horretan ondorio nagusi bi jaso dituzte. "Lehenengoa, egindako ikerketek argi adierazten dutela bonbardaketa egunean, momentuan bertan,

hildako otxandiarrak hilerrian lurperatu zituztela. Bigarrena, zenbait testigantzak adierazten zuten eremuan hobi komunik ez, baina enterramenduak eta hilotzak daudela,

Jaurlaritzak eta Aranzadik ez dute arrazoirik ikusi aurkitutako gorpuen identitatea aztertzeke

Enterramenduak banan-banan egin zirela dioen testigantza grabatua duela dio udalak

eta gaurkoz ez daukagula nahikoa informazio haien identitatea zein den adierazteko",

Ikerketa, indusketen oinarri

Aranzadik egindako ikerketa batek adierazten du bonbardaketan hildako batzuk gutxienez kanposantura eramane zituztela. Udaleko eta elizako artxiboetan halaxe jasota geratu zen; hau da, bonbardaketan hildakoen izen-abizen jakin batzuen ondoan, haiek nora

eraman zituzten jasota dago eta Otxandioko hilerria da toki hori. Artxiboetan jasotakoa indartzen zuten testigantzak ere bazituzten. Azkenik, geo-radar bidez egindako araketa batek lurra ez zen zonalde batzuk identifikatu zituen.

Prospekzioen kronika

Udalaren, Gogora institutuaren eta Aranzadi elkartearen bitartez egindako prospekzioak martxoaren 30ean eta 31n, eta apirilaren 1ean egin zituzten. Hondeamakina txiki batek zuloak egin zituen kanposantuen beheko aldean, oraindino hiliarrik ez dagoen belarrez estalitako eremu osoan.

Sarreratik gertu, testigantza batek adierazitako tokian hasi zituzten bilaketa lanak, baina ez zuten ezer aurkitu. Ondoren, georadarrak markatutako zonaldeetan zentratu ziren. Aurkitu zutena ez zen itxaroten zena: sasoi bateko harresi edo eraikin baten arrastoak ziren. Horren ostean, inguru berean hobi gehiago egin zituzten eta orduan agertu ziren aurrerago aipatutako hezurak eta enterramenduak. Biharamunean, kanposantuko beste zonalde batean jarraitu

zuten eta mota horretako enterramendu gehiago agertu ziren.

Aurrera begira

Eta aurrera begira zer? Memoriari lotutako ekimenak aurrera eramango dituzte, ikerketa posible berriei aterik itxi barik.

Horrela, memoriari lotuta, hilerria Otxandioko 'Lorratzak' ibilbidean sartuko dute. Orain hiru bat urte sortutako ibilbideak herriko hainbat toki lotzen ditu, eta gerra zibilak Otxandion utzitako arrastoak ezagutara ematea du helburu. Horrez gainera, hilerriaren sarrean, eta baita barruan ere, bonbardaketan hildako herritarrak oroitu eta omendu ahal izateko memoria-ren gune bat sortu gura dute.

Horrez gainera, enterramenduak aurkitu diren eremua "behar den moduan markatu, itxi eta txukun mantenduko dute", udal gobernuaren esanetan. Horrela, aurrera begira, ikerketa gehiago egiteko aukera zabalik mantendu gura dute. Ildo horretatik, baliagarria izan daitekeen informazioaren edo daturen bat izan dezaketen herritarrei udaletxean jakinarazteko eskatu diete.

“Lekukotza zuzenak desagertzen doazen neurrian, edozein hobi aurkitzea geroago eta gatzagoa da”

Denbora igaro ahala, hobiak topatzea geroago eta gatzagoa da. Aranzadi lan hori egiten dabil EAE osoan

OTXANDIO • JOSEBA DERTEANO

Jimi Jimenez durangarrak Aranzadin lan egiten du. Makina bat desobiratzen parte hartu du. Otxandiokoaz gainera, Durangaldeko beste herri batzuetan egindako indusketen inguruko azalpenak eman ditu.

Aranzadik, Eusko Jaurlaritzagaz batera, 128 indusketa egin ditu Euskal Autonomia Erkidegoan, eta horietatik 46 positiboak izan dira. Beraz, Otxandion gertatutakoa ez da hain arraroa.

Lekukotza zuzenak desagertzen doazen neurrian, edozein hobi aurkitzea geroago eta gatzagoa da, informazio zehatza galtzen doalako. Hobiak mendian, bide bazterreko kunetetan edo basoan daudenean, aldaketak gertatu direla kontuan izan behar dugu, eta erreferentzia zehatzak desagertzen dabiltzala. Hilerrietan, bilaketa guneak muga-

tuagoak dira. Baina gogoratu behar dugu hilerriak espazio “biziak” direla. Hobi horren ostean, herriek gizartearen beharrei erantzunak eman behar izan dizkiete, eta gune batzuk berrerabili behar izan dituzte. Salbuespena dira interbentzio gutxi izan duten eta nagusien memoria heredatu duten lekuak.

**Otxandioren kasuan,
arrasto berriak
informazio berriei
lotuta egongo dira**

Hori da Otxandioren kasuan gertatu dena?

Otxandion hau gertatu ahal izan da. Bila ibilitako lekuetan ez da 36ko gertaera latzaren ebidentzia argirik topatu. Gaur egun, ikerketa



eta lekukotza zehatzez gainera, zortea garrantzitsua da. Hala ere, zortea izatea bilaketa egitea besteko inportantea da. Otxandioren kasuan, arrasto berriak informazio berriei lotuta egongo dira.

Durangoko hilerrian 1937ko bonbardaketan eraikitako hobia dagoela diote.

Durangoko hilerriaren kasua Otxandiokoaren oso antzekoa da. Hasierako lanei 1937ko martxo

eta apiril arteko hobiak aurkitzeko familien eta herriaren interesa gehitu behar zaie autoritateen aurrean. Ezinbestekoa da jakitea enterramenduak existitzen diren, eta non. Durangoko hilerria lako leku batean, memoriarako leku hori existitu beharko litzateke. Urtean behin loreak ipini daitezkeen leku bat izatea. Oraingoz, ditugun datuekin, ez dut uste bertan lanik egitea aurreikusita dagoenik. Baina

egoera aldatu egin daiteke informazio edo lekukotza berriei.

Durangaldeko beste herri batzuetan, zein ikerketa egin duzue?

Zornotzako hilerrian ez dugu lanik egin, ez dugulako familien edo beste inoren eskaerarik jaso. Euban, Be-diagan, indusketa negatibo bat egin genuen. Gantzabalen, gudari baten aurkikuntza izan genuen, San Miguel auzoan. Elorrioko Santa Luzian ere emaitza negatiboa izan genuen.



ZARATE ELEXPE
E R A G I L E A K

Tel.: 946 816 673
www.zarateyelexpe.com

IURRETA Tellitu-n

3 logelatako 6 etxebizitza

2 logelatako 11 etxebizitza

Garajea eta trastelekua barne

Jose Mari Uriarte Gerediagako kidea omenduko dute San Agustinen, gaur

Ogibidez maisua izan zen arren, afizioz argazkilari, historiazale eta idazlea izan zen



Besteak beste, Pablo Pedro Astarloari buruzko biografia argitaratu zuen.

DURANGO • JONE GUENETXEA

Apirilaren 17an urtebete izango da Jose Mari Uriarte Gerediaga Elkarteko kidea zendu zela. Pandemia tarteko izanda, durangarrari me-rezitako agurra ematea ezinezkoa izan zela gogoratu dute elkarteko arduradunek. "Aurten, murrizketekin izan arren, Jose Marik elkarteari egindako ekarpena azpimarratzeko eta bera gogoratzeko ekitaldia izango da", esan dute. Afo-

"Elkarteari eginiko ekarpena azpimarratzeko eta bera gogoratzeko ekitaldia izango da"

Arripozueta preso ondoan Uriarteren erreportajearen erreplika ipiniko dute tamaina handian

ro mugatua izango denez, aurretik izena eman beharko da (gerediaga@gerediaga.eus / 946818066).

Bestalde, Uriartek azken Astola aldizkarian argitaratu zuen erreportajearen erreplika ipiniko dute Arripozueta preso ondoan. Tamaina handiko olanetan, Arripozueta buruz hil aurretik berak idatzitako lana inprimatu dute.

Arrazakeriaren aurkako astea Durangon, hilaren 20an eta 21ean

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durango Udalak bat egin du Arraza Diskriminazioa Ezabatze Nazioarteko Egunagaz. Herriar guztien inklusioa, gizarte-kohesioa eta kulturartekotasuna sustatzeko ekitaldiak antolatu ditu apirilaren 20ra-ko eta 21erako. Hori dela-eta, apirilaren 20an Migrazioaren Munduko Itunari buruzko berbaldea eskainiko du Madrilgo Unibertsitate Konplutentseko Lorenzo Cachon soziologoak. 18:30ean eskainiko du berbaldea, Elkartegian. Bertaratu gura duenak izena eman beharko du udalaren Immigrazio Sailean, 944657091 telefono zenbakian edo www.durangonbizi.net helbidean. Bestalde, apirilaren 21ean gosari-elkarrizketa egingo dute Durango Irratian. Jose Antonio Oleaga eta Xabier Aierdi soziologoak eta Begirune Fundazioko kideak elkarrizketatuko dituzte, 11:00etan. Gainerakoan, ikastetxeetan xenofobiaren eta arrazakeriaren aurkako lanetarako egingo dituzte.

Durango Udalak trenbide zaharreko lurri alternatiba bat bilatzeko lantaldea sortzea proposatu dio Eusko Jaurlaritzari

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durango Udaleko ordezkariak Eusko Jaurlaritzaren egoitzan izan dira asteon, orain lau aste eginiko herri galdeketa eratorritakoari buruz berba egiteko. 6.680 durangar 18 pisuko bost dorreen eraikuntza geldiaraztearen alde eta hirigintza proiektu berri bat definitzeko parte hartze prozesu bat zabaltearen alde agertu zirela-eta, udalak honako eskakizun hau

egin dio Jaurlaritzari: alde biko lantalde bat eratzea trenbide zaharraren oruberako "proiektu berria diseinatzeko" eta horretarako beharrezkoa litzatekeen "parte hartze prozesuari begirako oinarri batzuk" zehazteko.

Iñaki Arriola sailburuak elkarlanean aritzeko prestutasuna agertu du, betiere trenbidea lurperatzeko proiektuan adostu ziren "konpromisoak" betetzen badira. Jaurlaritzak dioenez,

udalak "lurperatze proiektuaren zati bat finantzatzea" adostu zuen "libratutako lursailetan hirigintza-aprobetxamenduak" eginda. Durango Operazioa deituriko lurperatze hartan, Euskal Trenbide Sareak "274,5 milioi" inbertitu zituela esan du Arriolak. Diru hori dela-eta, trenbidea lurperatzerakoan "libratutako espazioen gainbalioei" ukorik ezin diela egin esan du sailburuak.



Durango Udaleko ordezkariak Eusko Jaurlaritzakoekin, astelehenean.

anboto

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2021eko apirilaren 16a
19. urtea - 845. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

“Liburua idaztea erabaki genuen, inon argitaratuta ikusten ez genituen zenbait hausnarketa plazaratzeko”

'Los penúltimos días de la humanidad' liburuaren egileek pandemiaren inguruko hausnarketak jaso dituzte

DURANGO • JONE GUENETXEA

Ander Berrojalbizek eta Javier Rodríguez Hidaigok liburua kaleratu dute Pepitas argitaletxeagaz. Covidaren kudeaketaren inguruan jarrera kritikoa dute.

Zerk bultzatuta idatzi duzue liburua?

Aspalditik lagunak izanda, COVID-19aren gaixotasuna agertu zenetik, Javier eta biok kontaktuan egon gara denbora guztian, bizi garen estatuetako gobernuak, Frantziakoak eta Espainiakoak, eta jendarteak egiten zuten komentatu izan dugu. Zenbait testu eta artikulua argitaratu ondoren, abenduan liburua idaztea erabaki genuen, inon argitaratuta ikusten ez genituen zenbait hausnarketa plazaratzeko. Nagusiena, epidemiaren larritasuna, ukaezina dena, ez dela nahikoa alde guztietatik egiten ari den askatasun murrizketa babesteko, are gutxiago gazteenen aurka gauzatzen ari den krimena justifikatzeko.

COVIDaren inguruan, hedabideek zein paper jokatu dute?


Gehienbat gobernuen propagandaren bozgorailua izan dira. Bon-

bardaketa informatiboagaz debate oro ukatu izan da, kriteriodun hausnarketa lasaiari ia lekuri utzi barik. Adibidez, ez da epidemiaren tamaina erlatibizatzen balio ahal duen ia ezer argitaratu. Esaterako, tuberkulosiak eta malariak 2 milioi pertsona hiltzen dituzte munduan urtero, eta zifra horixe da 2021eko urtarrilera arte COVIDagaitik hildakoen kopurua; gainera, tuberkulosiagaitik eta malariagaitik hildakoak askoz ere gazteagoak izaten dira (malariagaitik hildako pertsonen erdiek baino gehiagok 5 urte baino gutxiago dituzte), eta, askotan, sistema sanitario eskas baten ondorioz hiltzen dira.

Zientzialariak edo zientzia "erabili" egin dutela diozue. Zein zentzutan?

Ondorio sozialak dituen erabaki

Bonbardaketa informatiboagaz debate oro ukatu izan da, kriteriodun hausnarketa lasaiari ia lekuri utzi barik



Ander Berrojalbiz Etxebarria

Sortzailea

DURANGO | 1983

tekniko edo zientifiko oro erabaki politikoak dira. Hau saihestuta, zientzia sakralizatu, literalki ukiezin bihurtu gura izan da, debatetik ateratzeaz gainera, azken hau isilarazteko erabiliz.

Kulparen kolektibizazioaz ere berba egiten duzue.

Bai, azken hamarkadetakoko gure osasun sistemen eraispeneraren arduradun diren politikariek, gure begirada euren gestio deitoragarritik aldentzeko asmoz, kulp kolektibizatzen duten

mekanismo asko martxan ipini dituzte azken urtean; uneoro kalean eta mendian maskara erabiltzeko derrigortasuna, edo

Ondorio sozialak dituen erabaki tekniko edo zientifiko oro erabaki politikoak dira

gazteen bizimodua seinalatzea kasu. Eta, orokorrean, funtzionatzen ari da. Gobernuak eta haien murrizketek, edo, hobeto esanda, zenbait enpresa pribatuetako zientzialariek “zerbait egin” arte, isil-isilik itxaroten ari gara, ia noiz itzultzen diguten fisiologiaren haratago doan gure bizia, azken hau estimu handitan ez gurela frogatuz. Agian, gure bizimodua, hau guzti hau hasi baino lehen, jada erabat hutsik zegoela aitortu beharko dugu.

Durangoko martxanterak omenduko dituzte Boni Macarronen margolan bat inauguratuta

Durangoko Udalak Andra Mariko elizpean ipiniko du horma irudia, domekan, 13:00etan

DURANGO • AITZIBER BASAURI

Durangoko Udalak omenaldia egingo die Andra Mariko elizpean egoten ziren martxanterei. Ekitaldi baten bitartez izango da, apirilaren 18ko domekan. Boni Macarronen

margolan bat aurkeztuko dute, elizpean ipiniko dutena behin betiko. "Herri modura kohesionatu behar dugu, eta, horretarako, Durangon ditugun ikur eta erreferentziei balioa eman behar diegu. Boni eta

gainerako martxanterak sinbolo bat ziren gutariko askorentzat, eta, horregaitik, gure egunerokotasunean presente jarraitzea gura dugu, artelan txiki baten bitartez bada ere", dio udalak.



Boni Macarron Andra Mariko elizpean.



Fray Juan Zumarraga, 23 - DURANGO
Tel.: 94 681 73 25 / 94 681 77 30 -Faxa: 94 681 02 58
info@durangobhi.net - www.durangobhi.net

•DBH - BATXILERGOAK
-Arteak/ Giza eta gizarte zientziak/ Zientziak

•GELA EGONKORRAK ETA ZEREGN IKASTEKO GELAK

•HEZIKETA ZIKLOAK
ERDI-MAILAKO ZIKLOA:
- Natura Ingurunekeo gidari lanetako eta aisialdiko teknikaria
GOI-MAILAKO ZIKLOA:
- Gizarte eta Kirol Irakaskuntzako eta Animazioko Goi-Mailako Teknikaria

Deneriko produktuak saltzen dituen Idoia herriko denda zabaldu dute Mallabian, mota horretako komertzio bakarra herrian

Besteak beste, ekoizle mallabitarren barazkiak, gazta eta jogurta saltzen dituzte egunero zabalik dagoen dendan

MALLABIA • JOSEBA DERTEANO

Joan zen asteko martitzenetik denda berri bat martxan da Mallabian: Idoia herriko denda. Askotariko produktuak saltzen dituen denda bakarra da Mallabian, eta orain arte zegoen hutsune bat bete gura du.

Denda osasun zentroaren ondoan dago. Lokala udalarena da. Iaz lehiaketa bat abiatu zuen tankera horretako denda bat zabaldu gura zutenei bideratuta, eta Idoia Allende Urizarrek (Ermua, 1968) lortu zuen azpiegitura ustiatzeko esleipena.

Allendek hainbat ogibide izan du bere ibilbide profesionalean, eta, tartean, Mallabiko postaria izan da. Orduan ohartu zen Mallabian ez zegoela askotariko produktuen dendarik, eta bat zabaltzea ideia ona iruditu zitzaion. Gainera, lotura berezia du herriagaz, ama mallabitarra du eta.

Joan zen asteko martitzenean zabaldu zituen ateak denda berriak. "Lehenengo eguna itzela izan

zen, jende asko etorri zen denda ikustera. Harrezkero izaten ari den erantzunagaz ere pozik nago", dio Allendek.

Dendaria izatearen gaxena inbentarioa egitea eta dena egunera eramatea dela dio. Gehien gustatzen zaiona, ostera, bezeroekin duen tratua da. "Beti gustatu izan zait jendaurrean lan egitea", dio.

Bertako produktuak

Produktuak sailka banatuta daude, apaletan: fruta eta barazkiak, edariak, higienerako produktuak, elikagaiak... Eguneke ogia eta egunkaria ere saltzen ditu eta askotariko enbutidoak tokian bertan prestatzen ditu.

Produktu guztiak, orokorrean, ingurukoak dira eta batzuk herrikoak bertakoak. Esaterako, herriko ekoizle baten sasoiko barazkiak saltzen ditu. Eguntan, porruak eta azelgak ditu. 'Estakua' jogurta eta Idiazabal jatorri izena duen Onandi gazta ere Mallabiko ekoizleen produktuak dira.



Idoia Allende Mallabiko denda; oraingoz egunero zabaldu du, astelehenetik domekara.

Gozokien guneak arrakasta du eta umeek ilarak egin izan dituzte gozokiak erosteko

Gozokien gune bat ere badu eta umeen artean arrakasta izaten ari da. "Arratsaldetan denda zabaltzera etorri naizenetan umeen ilarak aurkitu ditut, denda noiz zabalduko zain", gogoratu du Allendek.

Oraingoz, egunero zabaltzen du denda. "Hasiberria naiz eta denda

ezagutzero eman gura dut", adierazi du. Astelehenetik barikura goizetan zein arratsaldetan egoten da zabalik, eta asteburuetan eguerdira arte (13:30). Dirutan ez ezik, denda egindako erosketak txartelagaz edo bizum bidez ere ordaindu daitezke.

17 ekoizleren produktuak Otxandioko Udaberri Azokan

Azoka domekan egingo dute, 10:00etatik 14:00etara

OTXANDIO • EKAITZ HERRERA

Domeka honetan Udaberri Azoka egingo dute Otxandioko plaza nagusian, 10:00etatik 14:00etara. 17 ekoizleren produktuak eskuratu ahaliko dira bertan. Herriko ekoizleenak izango dira eurentariko batzuk, eta inguruko herrietako beste hainbat produktu ere eskuratu ahaliko dira. Besteak beste, landareak, pastelak, ogia, gaztaia, eztiak, barazkiak, garagardoa edo

fruta egongo dira erosgai. Elikagaiez gainera, artisau biren lanak ere eskuragarri egongo direla jakinarazi dute antolatzaileek.

Montse Morote zinegotziak iragarri duenez, hemendik eta urtea amaitu bitartean antzera bateko beste hiru azoka egingo dituzte. "Santa Maña jaien bueltan izango da hurrengoa, udan. Beste bat irailean, eta neguan azkena", jakinarazi du Morotek.



Zubia ipintzen, martitzenean ateratako irudian.

Plaza ondoko zubi berria ipintzen hasi dira Mañarian

Andra Mari kalea eta Herriko Plaza lotuko dituen zubi berria ipintzen hasi dira aste honetan; besteak beste, arrapala bat egingo dute plaza alderantza

MAÑARIA • J.D.

Aste honetan, plaza ondoko zubi zaharra kendu eta berria ipintzen hasi dira Mañarian, eta lanak aste honetan zehar amaitzea aurreikusten dute.

Zubi berria orain arte egon dena baino apur bat garaiagoa izango da. Horrela, zubia eta plaza

modu bitan lotuko dituzte. Bate-tik, zubitik zuzenean plazara jaitziko den zazpi mailako eskailera baten bitartez. Bestetik, arrapala bat egingo dute irisgarritasuna ahalbidetzeko. Arrapala hori zirkulu erdi formakoa izango da eta 14 metroko luzera izango du gutxi gorabehera.



Edukiontzi berdeak Izurtzako Santo Tomasen, egunpasa doazenentzat

IZURTZA • J.D.

Udaberria heltzen denetik aurrera, geroago eta jende gehiago joaten da paseatzera edo egunpasa Santo Tomas ermita ondoko parkera. Beraz, zabor gehiago sortzen da. Hori dela-eta, Mankomunitateak, udalaren eskariari jarraituz, edukiontzi berde bi ipini ditu parkearen barruan eta ermitaren ondoan. Aldi baterako ipini dituzte, hau da, udaberrian eta udan egongo dira. Kontainer berri horiek parkearen kanpoaldean dauden beste biren erreformatu moduan lagunduko dute eta, gainera, parkera doazen guztiek gertuago edo eskurago izango dituzte zaborrontziak.



Azoka eguna Otxandion, iazko abenduan.



Gremioen gida

 **Zurgintza**

leike aroztegia & diseinua
NEURRIRA EGINIKO PROIEKTUAK



www.leikearoztegia.com
Antso Estegiz, 3 Durango
Tlf.: 94 681 72 29

 **Iturgintza**

 **UNAI GARAY**
ITURGINTZA
BEROGINTZA
GASA
Instalataile baimendua

659 673 790
unaigaray@yahoo.es

 **Iturgintza**

Mallabiena
M.Z.O. ITURGINTZA - GASA
BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.



Mallabiena industrigunea, 6
48215 IURRETA · Tel.: 946 818 862
mallabiena@mallabiena.com

 **Iturgintza**

 **Ubide**
iturgintza
Iturgintza, gasa eta berokuntza

946 030 506 / 625 702 208
ubide@euskalnet.net
48200 DURANGO 188 PK.

 **Iturgintza**

ALDEKOA-OTALORA
ITURGINTZA - GASA
BEROGINTZA - AIREA
MANTENIMENDU INDUSTRIALA

info@aldekoaotalora.com
692 859 779

Zubioure, 8 **IURRETA**
946 202 768
Ind. Arzubia - Pab. 13-14 **ABADIÑO**
944 071 791

 **Zurgintza**

 **ATERPE AROTZA**
EGUR ERAIKUNTZAK
TEILATU ETA BARRUKO LANAK



Asier Abendibar 635 74 84 65
Ander Maiztegi 655 73 75 51
www.carpinteriaaterpe.com

 **Dekorazioa**

JAIObarnizatuak

Armairu eta era askotariko
altzairuen lakadura eta
guztietako zaharberritzeak
egiten ditugu

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A · BERRIZ
Tel./Faxa: 946 824 143 · Mug.: 658 758 421
info@jaiobarnizatuak.com
www.jaiobarnizatuak.com



**Profesionalik
onenak zure
zerbitzura!**



Atxondo, Berriz eta Zaldibar perimetralki itxita daude; Durango eta Zornotza eremu laranja

Izurriaren bilakaera gorabeheratsua izan da Durangaldean. Txertaketa aurrera doa, baina galdera ikurrak agertu dira bidean



Durangoko Landako Gunean atondutako txertaketa gunea.

KORONABIRUSA • EKAITZ HERRERA

Gotzone Sagardui Osasun sailburuaren esanetan, pandemiaren bilakaera "oso kezagarria" izaten ari da, eta Jonan Fernandezek, Labi batzorde teknikoko presidentek

dioenez, baliteke Aste Santuko oporren osteko kasu positiboek goia jotzea datozen egunetan. Durangaldeko egoera epidemiologikoa gorabeheratsua izan da asteon, eta udalerririk gehienak saltoka ibili dira

Agintariek diote Aste Santuko oporren osteko kasuek datozen egunetan jo dezaketela goia

izurriaren eremu batetik bestera. Eremu horian orain. Eremu laranja gero. Berriz eta Zaldibarrek itxialdi perimetralagaz hasi zuten astea, eta bide berdina hartu zuen Atxondok martitzenean, bertako

egoera epidemiologikoa okerrera egin eta gero.

Asteburuan 66 kasu positibo erregistratu zituzten eskualdean. Horiei beste 19na batu zitzaizkien astelehen, martitzen eta eguaztenean. Asteak bide erdia egin zuenerako, eremu laranja kokatu ziren eskualdeko herririk handienak: Durango eta Zornotza. Eremu horian, oster, Abadiño eta Elorrio. Ehun mila biztanleko 379,68ko, 362,88ko, 296,62ko eta 281,95eko intzidentzitatea erregistratu zuten, hurrenez hurren, eguaztenean.

Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako herritarren %6k txertoen dosi biak jaso dituzte dagoeneko

Bien bitartean, txertaketa kanpainak aurrera jarraitu du, baina galdera ikur berriak agertu dira bidean. AstraZenecaren txertoak tronbosi kasu batzuekin lotura izan dezakeela-eta, bakuna 60tik 65 urtera bitarteko herritarrentzat mugatu dute. Eta Janssen etxeko txertoagaz ere, antzeko. Osakidetzak ez du haren txertaketa hasi, tronbosi kasuekin lotuta ote dagoelakoan. Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako biztanleen %6k txertoen dosi biak jaso ditu jada.

Etxe okupatu batetik irtenarazi dituzte Abadiñoko Zelaieta auzoan

Eguen goizean kanporatu zituzten; tentsio uneak bizi izan ziren Desokupa enpresako kideekin



Alfredo Baeschlin kalean eraikin bat desalojatu dute.

ABADIÑO • EKAITZ HERRERA

Eguen goizean, Desokupa enpresako kideek Zelaieta auzoko Alfredo Baeschlin kaleko etxe okupatu batetik irtenarazi zituzten bertako bizilagunak. Tentsio handiko uneak bizi izan ziren Desokupa enpresako kideen eta okupek babesa agertzera joandako herritarren artean. Ertzaintzaren hiru furgoneta bertaratu ziren, eta borrekin kolpatu zituzten bertan batutakoak. Lekukoen esanetan, Desokupa enpresako "zortzi-hamar kide" joan ziren eraikina desokupatzera. Horren aurrean, Abadiñoko dozenaka herritarrek protesta egin zuten. Arratsalderako kontzentrazioa deituta zegoen Abadiñoko Ferialeku plazan, "okupazioaren aurkako ofentsiba" gelditzea eskatzeko.

Lur Basterretxeak berbaldia eskainiko du Zaldibarko mendi astearren barruan

ZALDIBAR • JONE GUENETXEA

Zaldibarko V. Mendi Astearren azken berbaldia apirilaren 19an izango da, 18:00etan. Lur Basterretxea mendizale elorriarrak Tanzaniara egindako bidaiaren berri emango du liburutegi zaharrean.

Elorriarra 2015ean joan zen Tanzaniako eskola batera, boluntario moduan. Abentura horren barruan, Kilimanjaro mendi ezaguna igotzeko aukera ere izan zuen.

Egindako erosketa guztiek tokiko produktuteen zozketan parte hartuko dabe

**HERRI BAT
MERKATU
BAT**

OTXANDIOKO MERKATUA
Plazan
APIRILAK 18
10:00-14:00



www.gualbiasesores.com

- ✓ Aholkularitza fiskala
- ✓ Kontabilitate-aholkularitza
- ✓ Merkataritza eta finantza-aholkularitza
- ✓ Lan-aholkularitza
- ✓ Kontu-auditoretza
- ✓ Aholkularitza juridikoa

**Bezera, bere enpresako kudeaketa
eta bere gogobetetzea dira gure helburu nagusia**

Zumalakarregi kalea, 18 1.A - DURANGO
Tel.: 946 818 636 - Faxe.: 946 203 637 - info@gualbiasesores.com

Atxondoko Udalak lizentzia eman du Herri Eskolan sukaldea ipintzeko

Horrez gainera, Atxondoko Udalak iragarri du Haurreskola eta ludoteka hartuko dituen eskolen eraikin zaharra erabiltzeko lanak ere hasiko dituztela udan zehar

ATXONDO • A.B./M.Z.

Atxondoko Herri Eskolak sukaldea ipintzeko behar duen lizentzia eman du Atxondoko Udalak. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila uda honetan hasiko da gune berria prestatzen, eta datorren ikasturte-
tik aurrera martxan egotea aurre-
kusten dute.

Bestalde, Atxondoko Udalak iragarri du orduantxe hasiko direla Haurreskola eta ludoteka hartuko dituen eskolen eraikin zaharra ere eraberritzen. "Geroago eta hurbilago gaude gure herriko eskolak espazio berri horiek izan ditzan", azaldu du Xabier Azkarate alkateak. "Lan horiekin eta egin di-

tugun beste batzuekin, jolasgunea estaltzeko lanekin, adibidez, eta egingo ditugun beste batzuekin, Atxondoko Herri Eskola indartzen eta babesten jarraituko dugu", gaineratu du alkateak.

Gainera, eskola eremuko eta eliza inguruko "mugikortasuna hobetzen" ere jarraituko dutela esan du.



Udan hasiko dira sukaldea egiten.



Kale antzerkia eta umeentzako jarduerak Ganondoren irekieran

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Zapatu honetan, Elorrioko Udalak Ganondo parke berria zabalduko du. Horretarako, udalak ekitaldi ugari antolatu du. 12:00etatik 19:00etara bitartean batez ere, umeei zuzendutako hainbat jarduerak ludiko egongo da: egurrezko jolas parkea, Bungee Run jolasa eta haur txikientzako jolas parkea, besteak beste.

Horrez gainera, 19:00etan, Cal y Canto Teatro konpainiak eskainitako *The Wind Garden* ikuskizunaz gozatzeko aukera izango dute elorriarrek. Dantzaren, keinuen, musikaren eta objektu hegalar handien manipulazioaren bitar-

tez, emanaldiak espazio publikoaren aldarrikapena proposatzen du, besteak beste.

Elorrioko Udaletik azaldu dutenez, jarduerak guztiak doakoak izango dira, eta osasun neurri guztiak beteko dira, herritar guztien segurtasuna bermatzeko.

Parke berria prest

Udalak iazko irailean hasi zituen 12.000 metro karratu hartzen dituen berdeguneko lanak, eta dagoeneko amaituta daude lehenengo faseko lanak. Lan horiei eskerrak, paseatzeko eta aisialdirako gune berria izango dute elorriarrek.

Berrizko Elkarrekin Podemosek fatxadetako sinbolo frankistak kentzeko eskatu dio udalari

David Jimeno Elkarrekin Podemosen bozeramaileak idatzi bat aurkeztu du udaletxean

BERRIZ • E.H./M.Z.

David Jimenok, Elkarrekin Podemosek Berrizko Udalean duen bozeramaileak, idatzi bat aurkeztu du udaletxeko idazkaritzan, sinbologia frankista duten ikurrak herriko kaleetatik kendu daitezkeen eskatzeko. Kontua 2020ko urtarriletik dator. Hile hartako osoko bilkuran, talde moreak mozio bat aurkeztu zuen Memoria Historikoaren Legea betetzeko. Testuak gainerako alderdi politiko guztien

babesa izan zuen, eta, besteak beste, "Berrizko kaleetan, plazetan edo eraikinetan gera

Talde moreak Memoria Historikoaren Legea betetzeko mozioa aurkeztu zuen iazko

zitezkeen sinbolo frankistak kentzeko" erabakia hartu zu-

ten. Jimenok adierazi du mozio hura onartu zenetik "urtebete eta hiru hilabete" pasatu direla, eta "denbora nahikoa" egon dela sinbolo horiek kentzeko. Horregaitik guztiagaitik, orduan adostutakoa betetzera deitu du talde moreak. "Berrizko errepresaliatuen familiak errespetatu eta osasun demokratikoaren alde egin gura bada, ezin da frankismoa gogorarazten duen ezer egon udalerrian", nabarmendu du.

Iurretako aurrekontu parte hartzaileetarako, 50.000 euro

Herritarren proposamenak batzeko fasea zabaldu dute aste honetan, eta apirilaren 25era arte iraungo du

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Iurretako Udalak 2021eko aurrekontu parte hartzaileetarako prozesua abiatu du. Iazko metodologiari eutsiz, prozesua fase bitan antolatu dute. Udalak 50.000 euroko diru poltsa lotu du aurrekontuaren.

Astelehenean zabaldu zen proposamenak jasotzeko fasea, eta apirilaren 25era arte iraungo du. Bildutako informazioa aztertu ondoren, proiektuak lehenetsiko

dituzte. Herritarren Aurrekontu Zerbitzuaren (HAZ) ondoan ipinitako postontzien bitartez parte hartu ahal izango dute herritarrek. Eta honako saltoki hauetan ere bai: Irigoyen farmazian, Javi harategian eta Ogien Artean okindegian. Urte honetarako lotu den inbertsio atalaren (350.000 euro) ia %15 hartzen du aurrekontu parte hartzaileetara bideratuko den diruak, udal arduradunek nabarmendu dutenez.

lorena martínez ornoz
Sortzailea eta ilustratzailea

emozioa ilustratzen

apirilak 17 **Masterclass** Tailerra
16 urtetik aurrera Orduetgia: 10:00 - 13:00

Iurreta
Elizateko Udala
HERRI BIBLIOTEKA

Aidez aurretiko izen ematea: 946812726 - bibliotekoekintzak@iurreta.eus / Bidebarrieta, 4 - 48215 IURRETA (Bizkaia) WhatsApp: 688 86 37 36

hitz artekalea 23, durango
946 810 776
liburudenda info@hitzliburudenda.com

"Ederriko"
Kontau behar dot

Liburu aurkezpena
Karmelo Uriarte, Xabier Amuriza eta Kristina Mardaras.

Apirilak 22, 19:00-etan. "Edukiera mugatua egongo da."

Garai garagardo etxeak zerbezak eta pintxoak dastatzeko jardunaldiak hasiko ditu gaur

Jardunaldiak apirilaren 23an eta 30ean ere egingo dituzte. Parte hartzeko ezinbestekoa da aurretik erreserba egitea



Seina garagardo dastatuko dituzte jardunaldi bakoitzean.

GARAI • EKAITZ HERRERA

Gaurtik hasi eta hurrengo bariku bietan, Garai garagardo etxeak zerbezak eta pintxoak dastatzeko jardunaldiak egingo ditu. Modu presentzialean egingo dituzte, garagardo artisaua ekoizten duten baserrian bertan, Garaiko Etxeita baserrian. "Sei garagardo mota dastatuko ditugu. Denak sasoikoak, une honetan lantzen ari garen garagardoak. Eurretari bi edateko errazak diren garagardoak izango dira. Beste bi lupulatuak izango dira. Eta azken biak, postre modura, zerbeza beltzak izango dira. Garagardo bakoitza pintxo mokadu batez lagunduta hartuko dugu, edaria eta janaria zelan uztartzen diren aztertuta", azaldu du Ibon Berriozabalgoitiak, Garai garagardo etxeko kideak. Oraingoan, apirileko

barikuetan egingo dituzte jardunaldiak. Gaur, hilaren 23an eta 30ean. Baina aurrera begira data gehiago ere egongo direla aurreratu dute antolatzaileek. Maiatzean eta ekainean.

Dastaketak garagardo lantegiaren ondoan atondutako gune batean egingo dituzte, 17:30etik 20:30era. Modu horretan, bertaritzen direnek lehenengo eskutik ezagutu ahaliko dute garagardoa sortzeko prozesua. Jardunaldietan parte hartu gura duenak aurretiazko hitzordua erreserbatu beharko du ezinbestean. Horretarako, nahikoa izango da 685777398 telefonoan hartu-emanetan ipintzea. Alkohola kontsumitzea eta autoa gidatzea bateragarriak ez direnez gero, antolatzaileek taxi zerbitzua eskaini dezaketela ere aurreratu dute.



2019ko Landareen Azokako une bat.

Aurten ere ez da Landareen Azokarik egingo Garain

GARAI • EKAITZ HERRERA

Landareen Azoka domekan zen egitekoa, baina izurritea izaten ari den "bilakera ezkorra" ikusita, azoka bertan behera uztea erabaki du Garaiko Udalak. "Orain, lehentasuna izurriteari aurre egitea da, osasun agintariek emandako jarraibideei jarraian eginez, erantzukizunez eta arduraz jokatzuz", esan du udalak. Datorren urtean azoka egiteko nahia agertu du, "herriarren eta bisitarien partaidetza handiagaz".

'Kilometro 0' programa sortu dute Zornotzako artistei bultzada emateko

Udalak ibilbide artistikoa modu erdi-profesionalean edo profesionalean hasten duten zornotzarrei lagunduko die

ZORNOTZA • JONE GUENETXEA

Udaleko ordezkariak azaldu duteenez, programa hau "aisia hutsetik haratago doan ekimena da; izan ere, euren lanak udal-espazio batean eta tokiko programa baten babesean aurkezteko kontratazioaren bitartez, bultzada bat da artistek euren lehenengo urratsak eman ditzaten lanbide munduan; profesionalizaziorantz egindako bide bat edo arte eszenikoen

funtzionamendu profesionalera egindako hurreratzeko bat".

Aurten lau proposamen programatu dira eta horietarako sarrerak dagoeneko eskuragarri daude Zornotza Aretoaren webgunean: 'Ametsen urtebetetzea' (maiatzaren 15ean), 'El salto de leucade' (maiatzaren 21ean), 'Espazioa Txistua Denbora' (maiatzaren 22an) eta 'Arineketan' (ekainaren 5ean).

Zornotzan zabalik dago Gizarte Ekintzako laguntzak eskatzeko epea

Udalak 20.000 euro ipini ditu Gizarte Ekintzako elkarten esku. Eskariak hilaren 26ra arte egin daitezke

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Irabazi asmorik bako elkarteek eskatu ahaliko dituzte diru laguntzak. Bazterketa egoeran dauden kolektibo sozialak prebenitzeko, artatzeko edo gizarteratzeko lan egiten duten elkarteek, hain zuzen ere. Eskabideak egiteko epea apirilaren 26an amaituko da. Horretarako, hitzordua eskatu beharko da Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan, 010 edo 946300002 telefono zenbakietara deituta, edo udalaren web orrria jota.





Gure ikasleen ahotan



“‘Learning by doing’ metodologia gustatzen zait, egiten ikasi”

MIKEL FERNANDEZ ACHA (Durango, 21 urte)
Gastronomiaren eta Sukaldaritzako Arteen graduoko hirugarren maila egiten ari da Basque Culinary Centerren.

Definitu apur bat zeure burua: non egin dituzu orain arteko ikasketak? Baduzu hobby edo zaletasunik?
BCCra sartu aurretik, nire ikasketak San José Jesuitak ikastetxean egin nituen. Oso gustuko dut lagunekin arratsalde pasa egiteko elkartzeko, telesailak eta filmak ikusteko, noizean behin kirola egitea eta, nola ez, jatea eta edatea.

Zergatik aukeratu zenuen Gastronomia eta Sukaldaritzako Arteak gradua? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatea?
Gastronomia gustatzen zait, eta Basque Culinary Centerre gastronomiari buruz dagoen guztia ikasteko aukera eskaintzen zidan. Sukaldetik hasita eta ostalaritza-zerbitzuetara arte. Gainera, alde guztietako jendearekin harremanak egiteko aukera eman dit.

Nola baloratuko zenuke orain arte bizitako esperientzia?
Orain arte esperientzia bikaina izan da. Asko ikasi dut eta jende harrigarria ezagutu dut. Egia da, azken urte hau zaila izan dela guztiontzat, baina unibertsitatean oso ondo egokitu dira egoera berri.

Nola definituko zenuke Basque Culinary Centerren jasotzen duzun ikasteko metodologia?
Labur-labur esan dudana bezala, 'learning by doing' metodologia gustatzen zait. Hemen daramatzagun hiru urteetan, gure ezagutzak praktikan jartzeko tailerrak eta kanpoko praktikak izan ditugu. Gainera, sektorean eraginda duten pertsonen hitzaldiak izan ditugu, haien esperientziari buruz hitz egiteko eta aholku onenak emateko.

Unibertsitatetik zer da gehien gustatzen zaizuna? Eta zer bait hobetzeko?
Fakultatea leku zoragarria da eta han ikastea primerakoa da. Klaustroa eta talde txikiak izatea gustatzen zait, eta horregatik denok ezagutzen dugu elkar. Familia handi bat osatzen dugu elkar.

Zer nolako ekarpena egiten dizu praktikak egiteak?
Urteko praktikak oso erabilgarriak dira. Urtero praktikak egitea gure ezagutzak mundu errealean probatzeko modu bat da. Adituen eskutik esperientzia eta ezagutza berriak lortzeko modu bikaina da.

Etorkizunari buruz zeintzuk dira zure asmoak?
Oraingoan ez dakit zer ekarriko didan etorkizunak. Gaur egun, zerbitzuak garatzen diren Business Innovation espezialitatean nago. Orain egiten ari garena gustatzen zait, eta baliteke etorkizunean jatetxe-erlako talderen baten kudeaketan parte hartu nahi izatea. Badakidana zera da, pozik eta nire helburuak betetzeko lan egin nahi nukeela.

Udazkenean hasiko dira lurreta eta Zornotza lotuko dituen bidegorria egiten

DURANGALDEA • AITZIBER BASAURI

Bizkaiko Foru Aldundiak udazkenean hasi gura du Zornotza eta Iurreta lotuko duen 7,5 kilometroko bidegorria egiten, eta 2023ko urte hasieran erabiltzeko moduan egotea aurreikusten dute. Unai Rementeria ahalidun nagusiak azaldu duenez, lanek 12,6 milioi euroko inbertsioa eskatuko dute, eta 15 hilabete beharko dituzte gauzatu ahal izateko.

AP-8 autobidearen albotik joango da bidegorria, motordun trafikotik guztiz bereizita, eta N-634 errepidearen "benetako alternatiba" izango dela nabarmendu du Bizkaiko ahalidun nagusiak. Zornotza

eta Iurretako herriguneak batuko ditu eta herri bietako lau industrialdeekin lotuta egongo da.

7,5 kilometroko bidegorria 2023rako eginda egongo dela aurreikusten dute

"Beharrezko azpiegitura"

Iurretako eta Zornotzako alkateek azpiegitura "beharrezkoa" dela nabarmendu dute eta herri bientzat duen garrantzia azpimarratu dute.



Imanol Pradales, Andoni Agirrebeitia, Iñaki Totorikaguena eta Unai Rementeria.

Politikan

Mikel Uriguena
Herriaren Eskubidea



Ez gaitezen ohitu

Durango hainbat gauzengatik da ezaguna. Zoritzarrez, kiratsa eta kutsadura dira horietako bi. Urte luzez, baina, derrigorrez jasan beharrekoak zirela zirudien; etsipenez onartutako zerbait.

Duela 4 urte, aldiz, arazoa-rekiko jarrera aldaketa gertatu zen. Kutsaduraren inguruko kezka handitu ahala, Herriaren Eskubideak airearen kalitate sareak zituen akatsak eta kutsadurak eragindako kalte larriak salatu zituen udalean. Orduko agintarien erantzun faltak konponbidea eskatzen zuen herritarren plataformaren sorrera ekarri zuen.

2017ko salaketa horren ondoren ere bide beretik ekin dio Herriaren Eskubideak erakunde, hedabide zein sare soziale-tan. Helburua, beti, biztanleria kutsaduraren aurka babestea izan da. Beste adibide batzuen artean, 2018an Durangoko Udalean eta Eusko Jaurlaritzan airearen kalitatea aztertu eta kontrolatzeko mozioak aurkeztu zituen Elkarrekin-Podemosekin batera. Onartuak izan ziren moziook, EAJk eta PSEk babestu ez arren.

2020ko irailean, Tecnaliari esleituriko usain txarren ikerketaren emaitzek azaleratutako bentzeno emisio oso altuak ikusirik, udaletik neurriak adosteko bilera eskatu zitzaion Eusko Jaurlaritzari eta, orain, 2021ean kutsaduraren aurkako babesa eskainiko duen protokoloa exijituko zaio Ingurumen Sailari. Berea baita eskumena.

HE-EP-I taldean argi daukagu egin beharrekoa. Kutsaduraren aurkako borrokan jarraituko dugu. Ez da onargarria hain larria den arazo baten aurrean beste aldera begiratzeta eta Durango horregatik ezaguna izaten jarraitzea.

Durungaldea asteon

Batzar irekia, gaur, Durungaldeko elkartasun biltegia aurkezteko

Durungaldea | Beharizana duten pertsonen laguntzeko, Durungaldeko elkartasun biltegia eratu zuten, eta gaur batzar irekia egingo dute hori aurkezteko. 18:30ean izango da, Durangoko Frai Juan Zumarraga institutuan. Bestalde, proiektuagaz interesa dutenek 747 422 815 telefono zenbakira deitu edo biltegia.durungaldea@gmail.com helbidera idatzi dezakete.

Euskal Herrian Euskarazek bakarrikzeta saioa antolatu du apirilaren 23rako

Durango | Durungaldeko umoregile talde batek parte hartuko du saioan, eta, bakarrikzketaz gainera, bideo labur batzuk ere eskainiko dituzte. Bakarrikzeta saioa apirilaren 23an izango da, 19:30ean, Durangoko San Agustin kulturgunean. Sarrerak salgai daude Arte eta Historia museoa eta kutxazainetan, 8 eurotan.

Elkarretaratzea Elorrioren, zerbitzu publikoaren eta pandemiak kaltetutako sektoreen defentsan

Elorrio | 'Non dago diru publikoa?' lelopean, Elorrioko Sortuk elkarretaratzera deitu du domekarako. Mobilizazioa 12:00etan hasiko da, eta zerbitzu publikoak eta pandemiak kaltetutako sektoreak babestea da helburua. Baita apirilaren 22rako gehiengo sindikalak deitu duen zerbitzu publikoen defentsarako grebagaz bat egitea ere. Elorrioko Sortutik kalera irteteko deia egin dute.



Abadiñon barikuan gertatutako lan istripua salatu dute Cosmos Bizkaia enpresan

Abadiño | Apirilaren 9an langile bat hil zen lan istripuan Abadiñon, Lebario auzoko Cosmos Bizkaia enpresan. Osalanek jakinarazi zuenez, langilea oxigeno bonbonak manipulatzeko zibilizazio garabi bategaz, eta kargak harrapatuta geratu zen behargina.

Azken egunotan hainbat elkarretaratze egin dute lan istripua salatzeko. Barikuan, kontzentrazioa egin zuen Traña-Matienan, eta astelehenean Cosmos Bizkaia enpresaren atarian. Enpresa batzordeak bere osotasunean babestu zuen mobilizazio hau.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak: Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

Estetika gida

anboto



NUKLEO
ileapaindegia
946 582 996
Nizeto Urkizu, 14 behea
ELORRIO

Ile-apaindegia



Ile-apaindegia

IUNIK
ILEAPAINDEGIA

Antso Estegiz, 1
DURANGO
Tel.: 946 216 491








LABIRINTOA

Jarraitu bide egokiari.



DADOA

Dado guztietatik, zein da zuzena?



TOPATU ITZAZU

Beheko irudian topatu itzazu tximeleta guztiak.



LOTU ITZAZU

Lotu animalia guztiak euren larruagaz.

Zein animalia dago lekuz kanpo?



BIKIAK

Topatu maskara afrikar
hauen guztien bikiak.

MATEMATIKA

Egin eragiketa hauek beheko intsetuek duten zenbakia kontuan hartuta.

 = 5

 = 2

 = 6

 = 3


 +  -  =

 -  +  =

 -  x  =

MARGOTU

Margotu tximeleta beheko koloreekin.



 = 1

 = 2

 = 3

 = 4


 = 5

 = 6

 = 7

ITZALAK

Beheko itzal hauetatik, zein dago ondo?





ZEIN BAI?

Goiko irudi honetatik hartutako lau zati ondo daude, zeintzuk?




BIKIAK

Barraskilo hauetatik guztietatik
bi berdinak dira, zeintzuk?



FORMAK

Jarraitu puntiak eta forma topatuko
duzu. Zer da?




Hirukia





merkataritza gida sarean

anboto.org/gida



***Ezagutu eta erabili Durangaldeko
merkataritza gida BERRIA
euskaraz eta sarean!***

Merkataritza gidan parte hartzeko deitu: 946 217 902
Argazkiak - Datuak - Kokapena
(urtean 50€)



'Shakespeare en Berlin'

ANTZERKIA BERRIZ :: Apirilak 17

Nazismoak zapaldu duen gizartearen balio etikoak

1933an Berlinen (Alemania) gironutako antzezlan honek hiru lagun arteko istorioa kontatzen du: Martin eta Elsa (sasoi hartako Alemaniako zine munduagaz lotutako bikote ezkonberria) eta Leo, jatorri judua duen aktorea. 30eko hamarkadako bizi alaia partekatzen dute: UFA estudioen

zinea, antzerkia eta Berlingo kabaretak. Nazismoak boterea hartu eta dena apurtzen den arte.

Gau batean, euren arteko hartu-emana eta bakoitzaren patua erabakiko duen gertakaria jazoko da. Arden Producciones konpainiaren *Shakespeare en Berlin* Kultur Etxean ikusi daiteke, 19:00etan.

Apirilaren 16an

ELORRIO antzerkia
'Antonia' (Ekoma Teatro)
19:00etan, Arriola antzokian.

ZORNOTZA antzerkia
'Atzerrian lurra garratz' (Huts Teatro & Artedrama),
19:00etan, Zornotza Aretoan.

ZORNOTZA musika
Bastardix, 19:00etan,
Zelaieta Zentroko kontzertu gelan.

Apirilaren 18an

DURANGO antzerkia
'Tartalo, gaztaren sekretua' (Logela Multimedia), 12:30ean,
San Agustin kulturgunean.
Bigarren emanaldi bat eskainiko dute, 18:00etan.

ELORRIO antzerkia
'Zurginaren ipuina' (Trokolo Teatro), 14:00etan,
Arriola antzokian.

OTXANDIO antzerkia
Udaberriko Azoka,
11:00etatik 14:00etara,
plazan.

Apirilaren 20an

DURANGO berbaldia 'Pacto mundial para la migración. Buscando la protección de las personas migrantes', 18:00etan,
Elkartegian. (Hizlaria: Lorenzo Cachon, Madrilgo Unibertsitate Konplutentseko Soziologia katedraduna eta immigrazioaren kudeaketan aditua). Arrazakeriaren Aurkako Astearen barruan.

ZORNOTZA zinekluba
'La petite vendeuse de soleil', 19:00etan, Zornotza Aretoan. Jatorrizko bertsioan, azpigituluekin.

Apirilaren 21ean

ABADIÑO ipuinak
Peio Añorga ipuin kontalaria, 17:00etan,
Mediatekan (4-5 urteko umeentzat. Bigarren saioa eskainiko dute, 17:45ean, LHko 1., 2. eta 3. mailako neska-mutilei zuzenduta.

DURANGO elkarrizketa
Jose Antonio Oleaga eta Xabier Aierdi soziologian doktoreak eta BEGIRUNE Fundazioaren sortzaileei elkarrizketa, 11:00etan.
Irrati gosari-elkarrizketa, Durango Irratiko kazetari Idoia Azkorbebeitiak gidatuta: *Pacto social por la inmigración. Acuerdo social, político e institucional por la convivencia* izenburupean. Arrazakeriaren Aurkako Astearen barruan eratuta.

Apirilaren 23an

ABADIÑO izena-ematea
Udalekuetan izena emateko azken eguna, Mediatekan edo Errota kultur etxean. 3tik 17 urtera artekoentzako eskaintza.

BERRIZ antzerkia
'Uniko' (Teatro Paraiso)
17:00etan, Berrizko Kultur Etxean.

IURRETA ipuinak
Umeentzako ipuin kontaketa: Maite Franco, 17:00etan, bibliotekan (3-5 urtekoak, lagunduta). Sei urtetik gorakoentzat, 17:45ean. **Helduentzako ahozko kontaketa: Pablo Alboren (Asturias) eskutik, 'El Quijote, 400 y pico',** 19:00etan. Lekua hartzeko: 94 681 27 26 telefonora deituta, whatsapp bidalita, 688 86 37 36 telefono zenbakira edo biblioteca@iurreta.eus posta elektronikora idatzita.

ZORNOTZA antzerkia
'Porno vs Afrodita (edo I love #gorkaurbizu)' (Benetan be), 19:00etan, Zornotza Aretoan.

Apirilaren 25ean

DURANGO narrazioa
Hitzez eta ahotsez: 'Maitasunaren materia (lak)', 12:00etan. San Agustin Kulturgunean. Uribarri Atxotegi eta Mireia Delgado. Lekua hartzeko, bibliotekan edo 94 603 00 41 telefonon.

Zinema

:: Abadiño KULTUR ETXEA


• **El agente topo**
zapateria 17: 19:00
• **Asto Erregea**
domeka 18: 17:00

:: Berriz KULTUR ETXEA

• **Tom eta Jerry**
barikua 16: 17:00
domeka 18: 17:00

:: Durango ZUGAZA

• **Mortal Kombat**
barikua 16: 19:00
zapateria 17: 16:45/19:00
domeka 18: 16:45/19:00
astelehena 19: 19:00
martitzena 20: 19:00
eguztzena 21: 19:00
• **Una joven prometedora**
barikua 16: 19:00
zapateria 17: 16:45/19:00
domeka 18: 16:45/19:00
astelehena 19: 19:00
martitzena 20: 19:00
eguztzena 21: 19:00



• Una veterinaria en la Borgoña

zapateria 17: 19:30
domeka 18: 19:30
astelehena 19: 19:30
martitzena 20: 19:30
eguztzena 21: 19:30
• **Natura Bizia**
barikua 16: 19:30
zapateria 17: 17:45
domeka 18: 17:45
astelehena 19: 17:45
martitzena 20: 17:45
eguztzena 21: 17:45

:: Elorrio ARRIOLA

• **Nomaland**
zapateria 17: 19:00
domeka 18: 19:00
astelehena 19: 19:00

:: Zornotza ARETOA

• **Minari, historia de mi familia**
zapateria 17: 19:00
domeka 18: 19:00
astelehena 19: 19:00
• **Tom eta Jerry**
zapateria 17: 12:00
domeka 18: 12:00

ANBOTOk agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi agenda@anboto.org helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguzten eguerdia baino lehen

Durangaldeko azken albisteak jaso gura dituzu?

Batu Anbotoko whatsapp taldera



Bidali alta
688 635 041
telefono zenbakira

*** Izan zaitez berriemaile ere.**
Bidali zure argazki eta bideoak

 **anboto**

“Ez da istorio bat kontatzen bakarrik, gizarte bat, bizitzeko modu bat agertzen da”

Karmelo Uriartek eta Xabier Amurizak 'Ederriko. Kontau behar dot' aurkeztuko dute Hitz liburudendan, apirilaren 22an



BIOGRAFIA • ARITZ MALDONADO

Karmelo Uriarte Zornotzan bizi den zeanuritarrek 'Ederriko. Kontau behar dot' autobiografia idatzi du. Xabier Amurizaren laguntza izan du testua idazterako orduan. Bizkaiko Bertsozale elkartearen lehendakaria izan da Uriarte hamabi urtean, Batz kooperatibako kidea urte askoan, eta mila saltsatoko perrexila, liburuan irakurri daitekeen moduan. Durangaldeko beste bizilagun batzuek ere parte hartu dute liburuan. Durangoko Hitz liburudendan aurkeztuko dute liburuak, apirilaren 22an, 19:00etan. Osasun neurriak beteko dira, eta, hori dela-eta, aurretik lekua hartu behar da bertara deituta (946810776).

'Ederriko. Kontau behar dot'. Zer da kontatzea behar zenuen hori?

Karmelo Uriarte: Lagun artean-eta berba egiten genuen zerbait zen, aspalditik nuen asmoa buruan bueltaka, eta halako batean idazten hasi nintzen. 2016ko Bizkaiko Bertsolari Txapelketako finalean, artean hanka apurtuta nuela, Xabierregaz egon nintzen [berak jantzi behar zion txapela irabazleari], asmoa kontatu nion eta gustatu zitzaion ideia. Gero, zirriborroa pasatu nion, eta hortik hasi ginen. Idatzi ahala, mamia zegoela ikusten genuen eta elkarrizketa gehiago egiten genituen. Xabierrena bultzada garrantzitsua izan da.

Xabier Amuriza: Liburu desberdina izango zela ikusi nuen. Bazegoen materiala, baina horri forma eman behar zitzaion. Zelan dagoen ordenatuta, eta zelan dagoen kontatuta, horrek ematen dio berezitasuna. Ez da istorio bat bakarrik, gizarte bat islatzen da, bizitzeko modu bat. Detalle asko eman barik, gauza asko kontatzen

Idatzi ahala, mamia zegoela ikusten genuen, eta elkarrizketa gehiago egiten genituen

KARMELO URIARTE

dira. Oso gustura egin dudana izan da.

K.U.: Pertsona askok lagundu digute, ondo gogoratzen ez nituenak-eta argituz. Besteak beste, nire ama elkarrizketatu digu. 91 urte ditu. Gero, liburuak irakurtzerakoan, gustura irakurri duela aipatu digu berak ere, bere sasoiko pasarteak batez ere.

Liburuak bizkaieraz idatzita dago.

K.U.: Ez nuen zalantzarik zelan kontatu gura nuen. Bizkaieraz egin gura nuen, berba egiten dudana moduan, hain zuzen ere. Arina da irakurtzeko, eta idazkerak eragina du horretan, jakina.

X.A.: Zein euskara erabili erabakitzea garrantzitsua zen. Erdibideko

zerbait aukeratu genuen: bizkaiera estandarra erabili dugu gehienbat; hala ere, arratiera erabili dugu elkarrizketetarako, eta hainbat esamolde eta ahosko esalditan ere erabili dugu.

Idazkeraz gainera, kontakizunak berak ere harrapatzen zaitu.

X.A.: Pretentsinorik bakoa izan da, baina bizitza erreal bat kontatzen du, eta, hortaz, entzunagaitik edo bizi izanagaitik, liburuak tiratu egiten zaitu. Bizitza erreal bat da eta horrek harrapatu egiten zaitu. Ez dira pertsonak bakarrik agertzen, pertsonaiak dira. Funtsean, bizitzaren tirakada du liburuak.

K.U.: Liburuak harrera ona izan du. Horixe esan digute irakurri dutenek, hasi eta amaitu egin dutela.

Liburuak bizitza erreal bat kontatzen du, eta entzunagaitik edo bizi izanagaitik, tiratu egiten zaitu

XABIER AMURIZA

Xabier Amuriza bera eta Kristina Mardaras iurretarra erreferentziatza aipatzen dituzu liburuan.

K.U.: Eredutzat dudana hainbat lagun aipatzen dut liburuan. Xabierrena argi dago. Bizkaiko Bertsozale Elkartearen garaietatik dator asko, baina mutikotatik ere bai. Nuen adinagaz, niretzat oso inpaktantea zen Xabierren irudia, sotanagaz eta bertsotan. Bertsolaritzagaz hartu-emanen sakondu digu. Eta hor murgilduta, beste pertsonaia batzuk ere agertu dira liburuan. Kristina Mardaras, esate baterako, bertsolaria izandakoa eta txapelketara aurkeztutako lehenengo emakumeetarikoa. Bere jokaera eta hurbiltasuna nabarmentzekoak dira, eta ekarpen handia egin du. Justo Alberdi bere senarra ere agertzen da, hain justu ere nire emazte Maiteren euskara irakaslea izan zelako. Ondoan eduki izan ditudan ere aipatu ditut, bizitzan asko markatu nautenak.



Aurrematrikula
apirilaren 12tik 23ra arte

Olaburu 3 - IURRETA

Tel.: 94 428 80 00

www.oroobiogoitiabhi.hezkuntza.net

JUAN OROBIOGOITIA BHI

Batxilergoko modalitateak D eredu

- Zientzia eta teknologia.
- Giza eta Gizarte Zientziak.

- Euskarazko doako kalitatezko hezkuntza.
- Orientazio akademiko-profesionala.
- Familia, ikasle eta langile guztien partaidetza.
- Teknologia berrien aldeko apustua.



Euskal Herriko biodibertsitatea jorratzen duen 'Natura bizia' dokumentala estreinatuko dute asteburuan Zugaza zineman

Durangoko Avis ekoiztetxeak sortu du dokumentala, eta Euskal Herriko hainbat gunetan egin dituzte grabaketak, tartean Urkiolako parke naturalean



Dokumentalaren grabazioko irudiak.

DOKUMENTALGINTZA • A.M.
Natura Bizia dokumentala zinema aretoetara helduko da aste hone-tan. Durangoko Avis ekoiztetxe-ko Lexeia Larrañagak zuzendu du dokumentala, eta Alex Gutierrez arduratu da ekoizpen lanez; Asier Bilbao ekoizle durangarrak ere parte hartu du dokumentalean.

Julio Veiga arduratu da musikaz. "Zinemarekiko, naturarekiko eta gure ingurunearekiko pasioagaitik egin dugu dokumental hau", azaldu dute Avis ekoiztetxetik. Horrela, dozenaka gunetan egin dituzte grabazio lanak, kostaldean zein barrualdean: Deban eta Zumaian (Gipuzkoa) Flyschean, Urdaibain

Besteak beste, Aralarren, Bardeetan eta Flyschean egin dituzte grabazioak, baita Urkiolan ere

(Bizkaia), Aralarren eta Bardeetan (Nafarroa), besteak beste. Durangal-dean ere egin dituzte grabazioak, Urkiolako parkean, esate baterako. "Itsaslabar malkartsuak, itsaso amaigabea, magiaz beteriko basoak, kareharrizko mendi altuak... guztiek bizipen ahaztezinak eskai-niko dizkiote ikusleari. Munduko


zetazeorik handienen artean igeri egingo dugu, hartz arrearen lo-zorroaren ondorengo lehenengo pausoez disfrutatuko dugu eta mendietako hegaztirik ospetsuena den ugatzaren alboan hegaz egingo dugu", azaldu dute.
Ikuslearentzako "bidaia" bat proposatzen dute egileek *Natura bi-zia*n. "Oso gustuko dugu natura, eta lan honen bitartez Euskal Herriko altxor naturalak gertutik erakutsi gura dizkiogu publiko zabalari", adierazi dute. Grabazio lanei buruz, hainbat erronka nabarmendu dute egileek, besteak beste, zero azpitik grabatu izana. "Animaliak filma-tzea ez da batere erraza, gehien kostatu zaigunetariko bat hartz arrea izan da", nabarmendu dute. Animalia honen grabaziorako, dokumentalaren egileek hainbat egun behar izan zuten, baina po-zik daude lorturiko emaitzagaz. "Natura bizia da hau, gure ondare naturaleko txoko eta izaki harri-garrienetariko batzuk ezagutzeko bidaia zoragarria", esan dute.

Naturaldia jaialdia
Areto komertzialetara ailegatu aurretik, Naturalia zine jaialdian estreinatu dute *Natura bizia*, Donos-tiako Príncipe zineman; Bilbon, Gasteizen, Iruñean, Madrilen eta Valentzian ere eskainiko dute, gaurtik aurrera.

Gai librean

Historia zirraragarria

Iban Gorritik eta Mauro Saraviak antolatu duten *Anzola: Robert Capa euskalduna* erakusketak argi utzi digu Historian ez dagoela guztia idatzita. Bonbardaketaren inguruko datu berri bat argitu dute; 1937an faxistek eragin zuten bonbardaketa-ren argazki batzuen atzean zegoen pertsonaren izena kaleratu dute, José Maria Anzola gudariarena. Honek ar-gi uzten du Historian oraindik bada-goela ikertzeko gauza asko eta beste hausnarketa batera eramaten gaitu: zenbat gauza ez ditugu ezagutzen? Zenbat datu ezabatu dituzte? Zenbat gertakari isilarazi dituzte? Zenbat pertsonen izenak galdu dira urteetan zehar? Eta datu hauek guztiak argi-



Garazi Arrizabalaga Cabrerizo
Durangoko museoa

Gu bizitzen ari garen momentu historiko hau ulertzeko kapazak izango dira?

Nortzuk garen ulertzeko atzera begiratu behar dugu, baina ez dakigu iraganeko pasarteak ondo ezagutzen ditugun ala ez

tzeko daude oraindik, lan handia da-go egiteko. Hori da historialarien la-na. Ez al da zirraragarria? Era berean, guk zer utziko diegu etorkizuneko pertsoneri? Gu bizitzen ari garen mo-

mentu historiko hau ondo ulertzeko kapazak izango dira? Ondo egingo al dugu gure lana? Erresponstabilitate handia da hainbeste teknologia eta bestelako iturriak izanda, egia hutsa transmititzea. Izan ere, zein da egia hori? Eta zein da iraganaren egia?
Hau guztia daukat azken egunetan buruan. Nortzuk garen ulertzeko atzera begiratu behar dugu, baina ez dakigu iraganeko pasarteak ondo ezagutzen ditugun ala ez. Historiala-riaren lana benetan garrantzitsua da gure izaera bera ulertzeko. Izan ere, zu, orain, hemen, historia egiten ari zara. Horregatik, historia aspergarria dela esaten duten horiei hau esan beharko genieke: irribarre egin, etor-kizunean zure argazkia ikusi daiteke historia liburuetan eta!

“Nire bizitzako unerik onenetarikoa izan zen”

Eder Lombak 9a mailako Rain Shadow bidea igo du. 2003tik hona beste hamar eskalatzailek baino lortu ez duten balentria da

ESKALADA • JOSEBA DERTEANO

Ingalaterrako Sheffield herrian The Foundry rokodromo prestigiotsuko eskalada irakaslea da Eder Lomba berriztarra. Eskalatzen hasi zenetik desio bat zuen, Rain Shadow eskalada bidea igotzea eta ametsa egia bihurtu du.

Igo duzun eskalada bidea non dago eta zergaitik aukeratu zenuen?

North Yorkshire-en dago, Sheffield-etik ordu bira, iparralderantz. Eskalada pareta Malham Cove deitzen da eta eskalada bidea Rain Shadow. 9a mailako bidea da. Maila horretako bide bat igotzea nire ametsa izan da betidanik. Eskalatzen hasi nintzenean, youtube-n begira, Ben Moon eskalatzailea igo dudana pa-

retean eskalatzen ikusi nuen eta ikaragarria iruditu zitzaidan. Horregaitik aukeratu dut.

Prestaketa handia eskatu dizu?

Hasieran, lehenengoz joan nintzenean, intimidatuta sentitu nintzen. Oso gatxa iruditzen zitzaidan. 23 bat egunetan probatu nuen igo aurretik. Eguraldi txarra eta konfinamendua kontrako beste faktore bi izan dira. Baina, egia esanda, erronka hain handia denean, lortu ostean uzten dizun aho zaporea oraindino gozoagoa da.

Zein da igoseraren punturik gaxena?

Bideak 25-30 metro inguruko luzera du. Zailtasunik handiena puntu batean kontzentratuta dago. Horma kanporantz jausita dago eta helduleku txikiak daude. Behin

eta berriro jausten nintzen han eta desesperagarria zen.

Behin behintzat igaro zenuen puntu gax hori.

Bai, eta igaro nuen egunean banekien gora helduko nintzena. Ordutik gora heldu arteko denboran, gozatu egin nuen. Azkenengo helduleku biekin aurretik, atsedeen txiki bat hartu nuen eta nire bizitzako unerik onenetarikoa izan zen. Ez nuen atsedeen behar, baina momentua gozatu gura nuen. Negar apur bat ere egin nuen.

Eskalatzaile gutxi igo dute bide hori. Zerrenda txiki eta pribilegiatu bateko parte zara orain.

Bai, itzela da. Steve McClure-ek eta Ben Moon-ek zorion mezuak bidali dizkirate. Ilusio handia egin dit eta ondo gordeta ditut.

Erronka berri bat prestatzen zabilta?

Bai. Oraindino bide gaxago bat igo gura dut, 9b mailako bat. Eskalada gune eta bloke berean dago. Nire dohainetara ondo egokitzen den bidea da eta itxaropentsu nago, baina argi dut oraindino lan handia daukadala aurretik.



Eder Lomba Lopez de Ipiña

Eskalatzailea

BERRIZ (1994)

“Atzekokoba ez da eskalatu dudana biderik gaxena, baina bai gehien kostatu zaidana”

Martin Urrutia eskalatzaile elorriarra sasoi onean dago. Azken asteetan lorpen handi bi egin ditu Durangaldean. Atxarten eta Mugarran zailtasun handiko bideak igo ditu



Martin Urrutia Barrueta

Eskalatzailea

ELORRIO (1999)

DURANGO • J.D. / J.G.

Martin Urrutiak Atxarten dagoen Atzekokoba bidea eskalatu du. 8c+/9a zailtasuna duen bidea lorpen handi da eskalatzaile elorriarrentzat. Horrez gainera, Mugarran dagoen 'Todos a la cárcel' bidea (8C+) igotzen duen bigarren eskalatzailea izan da. Txapelketak bertan behera gertu diren sasoi honetan, harrian eskalatzen gozatzen dabil.

Non dago Atzekokoba? Noiztik zabilta hura igotzeko ahalegina egiten?

Sagasta inguruan dagoen koba txiki batean dago, Atzekokoba. 2015ean igo zuten lehenengoz, eta handik aurrera zazpigarren

edo zortzigarrena izan naiz igo-tzen.

Zein zailtasun dauka?

Psikoterapiagaz batera, igo dudana biderik gaxena da. Beharbada ez da izango igo dudana gaxena, baina gehien kostatu zaidana izan da. Bide osoak 17 metro inguruko altuera du. Koba hori udan eskalatzen da, iparraldera ematen duenez, gerizpea izaten duelako. Azaro hasieran hasi ginen probatzen, nahiko eguraldi onagaz. Baina azaro amaieran hotza egiten hasi zen. Egun askotan joaten ginen, baina hotz handiagaz. Prozesu hori guztia oso luzea egin zait. Gainera, badu oso mugimendu gax bat, eta beti jausten nintzen hor. Psikologikoki kosta egiten zitzaidan beti leku berean jaustea.

Puntu hori da zailtasunik handiena duena?

Mugimendu bi dira gaxenak, alde handiagaz. Lehenengoa ondo, baina bigarreana trabatu egin zitzaidan. Lehenengoan oso helduleku txikia du. Bigarrean

erortze handia du eta luzea da. Txikia izanda, kosta egin zait.

Baduzu horrelako beste erronkarik buruan?

Mugarran beste bide bat probatzen hasi nintzen eta joan zen barikuan egin nuen. *Todos a la cárcel* izena du eta 8c+ zailtasuna du. Oso paso gogorra du eta orain arte pertsona bakarrak eginda zeukan. Errepikatzen duen lehenengoa izan naiz eta horrek ilusio handia egin dit. Hori eginda, momentu honetan ez dut beste helbururik.

Sasoi onean zaude.

Bai, baina, horrez gainera, eguraldi onagaz eta Aste Santuan denbora libre izanda, bide biak egitea lortu dut.

Rokodromoan zer moduz? Txapelketetan parte hartuko duzu?

Konpetizio batzuk bertan behera geratu dira. Data batzuk ipinita daude, baina ez dakigu egingo diren. Euskal Herriko selekzioagaz pare bat kontzentrazio egin ditugu, baina zer gertatuko den zain gaude.

Podinara Urreta Jainaga

OINETAKO PATOLOGIAK
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ

Herriko gudarien kalea, 10 behe - DURANGO
Tel./Faxa: 946 215 404

BODEGUILLA

TRANA-MATIENA
Tel.: 94 681 43 85

Seguros Bilbao

RUEDA BILBAO ASEGURUAK
Jabier Rueda

Landako etorbidea, 1 DURANGO
Tel.: 946 202 710 - Faxe: 946 816 577
jrueda@segurosbilbao.com

Kulturalak Jon Larreategi entrenatzaile kargutik kendu eta Jon Gonzalez fitxatu du

Durangoko Kulturalak zuzendaritza berria du; entrenatzailea aldatzea izan da lehenengo erabakia



Jon Gonzalezek eguaztenean zuzendu zuen bere lehenengo entrenamendua.

FUTBOLA • JOSEBA DERTEANO

Durangoko Kulturalak zuzendaritza berria du. Agintari berriek eguaztenean hartu zituzten euren karguak ofizialki, eta baita lehenengo erabaki garrantzitsua ere. Entrenatzailea aldatu dute. Jon Larreategi Kulturalako entrenatzaile izateari utzi dio eta Jon Gonzalez fitxatu dute bere ordeiz.

Kulturalako talde nagusiak denboraldi irregularra darama eta une honetan jaitsiera saihestu guran dabil, bigarren fasean. Horixe izango da entrenatzaile berriaren helburua: Hirugarren Mailari eustea. "Taldearen dinamika aldatzeko eta jaitsiera saihesteko gogotsu

eta animoekin dator", adierazi dute klubetik ohar batean. Eguazten arratsaldean bertan zuzendu zuen bere lehenengo entrenamendua, eta zapatu arratsaldean izango du estreinaldia partidu ofizial batean, Balmasedaren kontra.

Kulturalako talde nagusiak denboraldi irregularra darama eta jaitsiera saihestu guran dabil

Gonzalezek urte askotako eskarmentua du entrenatzaile moduan. Aurretik, Sondika, Sestao River, Retuerto, Indautxu eta Santutxu taldeak entrenatu ditu.

Zuzendaritzan erreleboa

Sei urte eta erdi iraun duen agintaldiaren ondoren, Jon Andoni Bengoetxea buru zuen zuzendaritzak orain astebete iragarri zuen etapa baten amaierara heldu zirela. Hautagai zerrenda bakarra aurkeztu zen euraordezkatzeko, eta, beraz, ez da haustekunderik egin behar izan. Bigen Bizkarra abadiñarra da klubeko presidente berria eta Alfredo Irasuegi presidenteordea. Batzordekideak honako hauek izango dira: Valentin Sagastizabal, Alex Atutxa, Iñaki Prado, Iñigo Garrido eta Mikel Egia.

Juanjo Moreno omenduko dute domekan Durangon

San Jose Jesuitak Ikastetxean ekitaldia egingo dute, 11:00etan. 12:30ean Andra Mariko elizan batuko dira

OMENALDIA • JOSEBA DERTEANO

Juanjo Moreno martxoaren 23an hil zen eta, harrezkero, hainbat ekimen egin da bere figura gogoratu eta goraiatzeko. Ildo horretatik, San Jose Jesuitak Ikastetxeak Moreno oroitzeko eta omentzeko ekimena prestatu du domeka honetarako. 11:00etan, ikastetxean bertan, ekitaldi bat egingo dute eta, ondoren, 12:30ean, Andra Mari Basilikan batuko dira. Besteak beste, Jesus Lagundiko lagunak eta Durangaldeko hezkuntza, ki-

rol eta kultur arloko ordezkariak parte hartuko dute.

Omenaldi ekitaldiaz gainera, Morenok hainbeste arlotan egindakoak gogoratuko dituzte. Horregaitik, bizipenak, oroimenak, ikasketak, berbak, anekdotak, argazkiak... batu gura dituzte, biografia partekatu bat osatzeko. Horrelako dokumenturen bat duten herritarrei dei egin diete informazioa helbide elektroniko honetara bidaltzeko: erodriguez@durangojesuitak.org.



Juanjo Moreno 2015ean, Teila saria jasotzen.

Jokaldia

Ikuskizuna gure errepideetan

Bai, hori da ondoen deskribatzen duen berba: ikuskizuna. Kirol profesionalaren gakoa hortxe dago. Txirrindularitza zaleek, egon telebistaren beste aldean, egon errepide ondoetan, hori da ikusi eta sentitu behar dutena. Euskal Herriko Itzuliak horixe lortu du, ikuskizuna eskaintzea eta zaleengan ikusmina eragitea.

Pandemia zoro honen bueltan, zaleei irribarrea marraztu zaie ezpainetan, dibertitu egin dira eta, zelanbait esanda, berpiztu egin zaie kirol eder honekiko konexioa. Protagonisten eta zaleen artean sortu den erlazio honek sentazio eta aho zapore gozo bat utzi digu eta txirrindularitzarekin amesten hasi gara berriro.

Euskal txirrindulariek ere bertan jarri dituzte euren izen-abizenak, beste



Eneritz Iturriaga Mazaga
Txirrindularitza

"Aurtengo Euskal Herriko Itzuliak horixe lortu du, ikuskizuna eskaintzea eta zaleengan ikusmina eragitea"

"Euskal txirrindulariek ere bertan jarri dituzte euren izen abizenak, izen handi askoren aurretik; hori ere poztekoa da"

ziklista haundi askoren aurretik. Hori ere poztekoa da.

Horrekin batera, azpimarratu nahi nuke guzti-guztien jarrera segurtasun neurri dagokienez: errespetua nagusitu da, distantziak mantendu dira eta musukoak jantzita zituzten. Irudi hori eman izana oso garrantzitsua da lasterketaren etorkizunari begira, berriz

gure bideetara etorri dadin eta hitzordu handi honi eutsi deizaigun.

Azken hausnarketa moduan, gure euskal lasterketak aipatu gura ditut. Izan ere, bai, Bilbok Tourra ekarri digu. Baina, non dago Emakumeen Bira? Non daude gaztetxoek lasterketak? Ez ahaztu kirolariak behetik hasita egiten direla, eta behekoie ere lagundu egin behar zaiela, gora heldu daitezen. Harrobirik gabe ez dago aurrera egiterik. Gure gazteak txirrindularitzan hezten jarraitu behar dugu eta lehiazeko aukerak eskaini behar dizkiegu. Ildo horretatik, hausnartzeko momentua dela deritzot eta gauzak ikuspegiarekin aztertu behar ditugu. Gazte mailako lasterketei eta emakumeenei gehiago lagundu behar zaie, babes handiagoa behar dute eta lasterketa gehiago behar dituzte.

Hortxe dago etorkizuneko arrakastaren gakoa. Ez ahaztu inoiz.

DURANGALDE

San Kristobal ermita Oizen

Haizeak gogotik jotzen daki Oizko tontorrean, eta horrexegaitik dago han 40 bat aerosorgailuz osaturiko parke eolikoa. Bertan da San Kristobal ermita ere. Alde batera begiratuta, Durangaldea ikusten da. Beste aldera, Urdaibai ingurua.



KO TXOKOAK?

Durangoko Alde Zaharra

Hauxe da Durangoko Alde Zaharraren irudia Andra Mariko kanpandorretik begiratuta. Aurrez aurre Santa Anako kanpandorrea ageri da. Eta haren atzean, Tabiran dagoen AHTaren zubia. Atzerago, Anbotoko mendilerroa, Untzillatx erdi-erdian.





ETXETXO
G. INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com



AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO



ISD Inmobiliaria
del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com



Fernando Uribe
Barrenkalea, 15 behe • DURANGO
Tel.: 946 816 423 • **www.fernandouribe.es**

// AUKERA

OTXANDIO: 3 logela, komuna, sukaldea, despentsa eta egongela. **C.E.E= F. 65.000 €**

IURRETA: MASPE: 2 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Igogailu berria. Eguzkitsua. Berriztatua. **C.E.E= E. 140.000 €**

BERRIZ: 74 m2. 3 logela, komuna dutxagaz, sukaldea eta egongela. Terraza. Igogailua. **C.E.E= F. ALOKAIURUAN, EROSTEO AUKERAGAZ. 110.000 €**

KURUTZIAGA: 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Terraza. Igogailua.

C.E.E= E. 131.000 €

ALDE ZAHARRA: 3 logela, komuna, sukaldea, egongela eta despentsa-trastelekua. **C.E.E.= F.130.000 €**

DURANGO: Etxebizitza altua. Eguzkitsua. Argitsua. 2 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Igogailua. Jantzia. **C.E.E= F. 145.000 €**

// ETXEBIZITZAK SALGAI

SAN INAZIO: 3 logela, komuna, sukaldea, eskegitokia eta egongela. Terraza. Eguzkitsua. Etxe osoak kanpora ematen du. **C.E.E.= F. 226.000 €**

EZKURDI: 175 m. 5 logela, 3 komun, sukalde handia eta egongela. Ganbara. Garajea aukeran. **C.E.E.=F. 350.000 €**

IURRETA: Apartamentua. Logela, komuna, sukaldea, egongela eta eskegitokia. Ganbara. Garajea 2 kotxerentzat. **C.E.E= E. 170.000 €.**

ERRETENTXU: 4 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Terraza. Berogailua. Igogailua. Garaje itxia aukeran. **C.E.E= E. 179.000 €**

MATIENA: ESTREINATZEKO. (Tasatua) 3 logela, 2 komun, sukaldea, eskegitokia eta egongela handia. Garajea eta trastelekua. **C.E.E= A. 210.000 €**

MASPE: 126 m2. 4 logela, 2 komun eta egongela terrazagaz. Ganbara. Garajea. Etxe osoak kanpora ematen du. Eguzkitsua. **C.E.E.= F. 250.000 €.**

B. KAPANAGA: 2 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Etxe osoak kanpora ematen du. Argitsua. **C.E.E= G. 125.000 €**

MATIENA: SOLAGUREN. Erdialdean. Argitsua. 3 logela, komuna eta sukalde handia. Igogailua. Ganbara. **C.E.E=G. 120.000 €**

ERRETENTXU: Etxebizitza altua. Argitsua. 3 logela, komuna leihogaz, sukaldea eta egongela terrazagaz. Garajea aukeran. **C.E.E=F 208.000 €**

J.M. ALTUNA: 3 logela, komuna eta sukaldea. Ganbara. **C.E.E=G. 215.000 €**

SAN AGUSTINALDE: 103 m2. DENA BERRIA. 3 logela. Bainugela. Egongela. Terraza.

ARTEKALEA: 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela handiak. Terraza. Trastelekua. **C.E.E=F 198.000 €**

IURRETA: MASPE: 3 logela eta komuna. Terraza. Igogailua. Berriztatua. **C.E.E:F 160.000 €**

F.J. DE ZUMARRAGA: 4 logela, komuna eta egongela terrazagaz. Eguzkitsua. **220.000 €**

KURUTZIAGA: 80 m2. 3 logela, komuna, sukalde-jangela eta egongela. Terraza. Ganbara. BERRIZTATUA. **C.E.E=G 186.000 €.**

MIKELDI: Etxebizitza altua. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Igogailua. **CEE= E. 160.000 €**

ABADIÑO: 1.000 m2-ko lursaila eraikitze baimenagaz. **250.000 €**

EUBA: Berriztatua. 3 logela, 2 komun, sukaldea balkoiagaz eta egongela. Ikuspegi ederrak. **C.E.E=E 147.600 €.**

MAÑARIA: Etxebizitzak eta atikoak. Estreinatze. **125.000 €**

BERRIZ: BIDEGAIN. 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Terraza. Garajea eta trastelekua. **C.E.E= F. 205.000 €**

// LOKALAK ETA GARAJEAK SALGAI

F.J. ZUMARRAGA: AUKERA. 114 m2. SALMENTA **175.000 €**

- **ASK.ETORBIDEA:** Garaje itxia. **24.000 €**

- **ASK.ETORBIDEA:** **8.000 €**-tik aurrera.

- **ABADIÑO:** 160m2-ko lokala. Egokitua. Dena erakusleihoa bi kaletan. **175.000 €**

// ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO: Txibitena. 4 logela. Pisu zabala. Sukaldea, egongela eta komuna. 2 balkoi. Garajea eta trastelekua

DURANGO: Antso estegiz. 3 logela, 2 komun, sukaldea-jangela eta egongela. ganbara.

DURANGO: Hegoalde kalea. Adosatua salgai. 4 logela, 4 komun, txokoa, terraza eta lorategia. Ezin hobea.

ABADIÑO

ETXEAZPIA KALEA: Pisu zabala, 3 logela, 2 komun, sukaldea balkoiagaz eta egongela. Ganbara. Garaje itxia aukeran.

BERRIZ

ELIZONDO ETXETALDEA: Pisu guztiz eguzkitsua. Egongela, jangela, sukaldea, 2 komun eta 3 logela. Garaje itxia aukeran.

BERRIZ: 3 logela, komuna eta egongela. Ganbara. Eguzkitsua. Merkea.

ATXONDO: 2 logela, komuna, sukaldea eskegitokiagaz, despentsa eta egongela.

//LURSAILAK SALGAI

DURANGO: 2.360 m2-ko lursaila. Durangotik oso gertu. Zarratua eta zuhaitzekin. Eskaintza paregabea.

GAZTELUA: 10.000 m2-ko lursaila. Nekazaritza-lurra. Leku onean. Egokia.

IURRETA: 5 hektarea inguruko lursaila. Abeletxe bat egiteko aukeragaz. Sarbide ona.

//BASERRIAK ETA TXALETAK

SALGAI

ATXONDO: AXPE. Baserri ederra salgai. Berriztatze. Kokapen izugarria.

ELORRIO: Araunas auzoa. Baserri eder bat eraikitze. 10.000 m2. Ikuspegi izugarriak.

MAÑARIA: 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160 m2 solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.

MAÑARIA: Baserria salgai. Herrian bertan. 3.000 m2-ko lursaila. Bizitzera sartzeko moduan. Oso polita.

ELORRIO: Aldape auzoa. Baserria, berriztatze. 3 hektareako lursaila. Prezioa: 115.000 €

MENDATA: Lamikiz auzunea. Bizitza biko baserria. Berriztatze. Eguzkitsua. Prezio interesgarria.

DURANGO: Adosatu ederra, izkinakoa. Guztiz jantzita. Estreinatze.

//BULEGOAK ALOKAIURUAN

ABADIÑO

20 m2-tik gorako bulegoak. 350 €-tik hasita. Argia eta wifia barne.

//GARAJE ITXIAK SALGAI

Durango, garaje itxiak salgai 25.000 €-tik aurrera.

//LOKALAK ALOKAIURUAN

Alde Zaharrean, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.

//LOKAL INDUSTRIALA SALGAI

MATIENA: 460 m2-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia.

www.inmoduranguesado.com



DURANGO
92,71 m²
MARTXOAREN 8KO KALEA: (antzinatasuna 12 urte) 3 logela, egongela, sukaldea jantzita, eskegitokia eta 2 komun. Etxe osoak kanpora ematen du. Argitsua. 18,30 m2-ko garaje itxia. Igogailua. Leku onean.
315.000 € C.E.E: Bidean



IURRETA
3 logela
68,62 m²
ZUBIAURRE: 3 logela, egongela, sukalde jantzia eta komuna. Balkoia. Erdia kanpora begira. Igogailua. Kontserbazio egoera onean. Leku onean. AUKERA.
150.000 € C.E.E:Bidean



ELORRIO
84,8 m²
3 logela
IBAIONDO: Egongela, sukalde jantzia, 3 logela, 2 komun eta eskegitokia. Etxe osoak kanpora ematen du. Leku onean kokatua. Egoera onean. Garajea eta 3 m2-ko trastelekua. Bigarren garajea aukeran (15.000 €).
225.000 € C.E.E:F



DURANGO
84,35 m²
DURANGO: Lokal egokitua, iskinan Fray Juan de Zumarraga eta Alluitz kaleen artean: 84,35 m2 (erabilgarri), espazio gardena. Leku ezin hobea herri biren artean, oinezko eta ibilgailu askokoa. Erakusleho handia du (Hegoaldera begira). Argitsua.
240.000 €



TABIRA: Apartamentua. Egongela, sukalde jantzia, logela, komuna eta eskegitokia. Saloia, sukaldea (amerikarra) jantzita. Ipar-menbaldea. 15 urte baino gutxiagoko antzinatasuna. Garajea.
169.000€ C.E.E: Bidean



DURANGO
2 logela
67 m²
SASIKOA: 67 m2. 2 logela, sukalde jantzia, egongela eta komuna. Balkoia. Etxe osoak kanpora ematen du. Hegoaldea. Argitsua. 28 m2-ko garajea eta 3m2-ko ganbara barne. Igogailua. AUKERA.
229.000 € C.E.E: E.

//DURANGO

BARRENKALEA: Konpontzeko dagoen eraikina. Sotoa, behe-solairua eta 3 pisuko altuera. **350.000 € / E.E.Z=F**

ERRETENTXU KALEA: 4 logela, sukaldea, egongela balkoiagaz eta komuna. Igogailua. **LEHEN 185.000 € / ORAIN 179.000 € E.E.Z=E**

EZKURDI PLAZA: 4 logela, sukaldea, egongela eta 3 komun. Igogailua. **LEHEN 321.500 € / ORAIN 300.000 € / E.E.Z=F**

GOIENKALE KALEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. **155.000 € / E.E.Z=G**

KALEBARRIA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Ganbara. **130.000 € / E.E.Z=F**

KOMENTU KALEA: 4 logela, sukaldea balkoiagaz, egongela balkoiagaz, bainugela eta komuna. **160.000 € / E.E.Z=G**

MURUETATORRE: 2 logela, sukaldea balkoiagaz, egongela eta 2 komun. Igogailua. Ganbara eta garajea. **238.000 € / E.E.Z=E**

SAN FRANZISKO: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Garaje itxia. Igogailua onartuta. **195.000 € / E.E.Z=E**

SANTIKURUTZ KALEA: Etxebizitza bifamiliarra eraikitze 600 m2-ko lurzorua. **LEHEN 640.000 € / ORAIN 550.000 €**

TXATXIENA: 4 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. 2 balkoi. Garajea eta trastelekua. **LEHEN 390.000 € / ORAIN 375.000 € / E.E.Z=E**

TXIBITENA: 4 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Igogailua. Ganbara eta garajea. **250.000 € / E.E.Z=E**

TXIBITENA: 4 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Igogailua. Ganbara eta garajea. **250.000 € / E.E.Z=E**

TXIBITENA: 4 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Igogailua. Ganbara eta garajea. **250.000 € / E.E.Z=E**

//ATXONDO

ARRAZOLA ERREPIDEA: 2 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Igogailua. Garajea eta trastelekua. **170.000 € / E.E.E=BIDEAN.**

//BERRIZ

ANDIKONA AUZOA: Berreraikitze baserria. **460.000 €.**

BERRIZBEITIA KALEA: 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela eta balkoia. **120.000 € / E.E.Z=F**

LEARRETA MARKINA: 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Balkoia. **LEHEN 102.000 € / ORAIN 95.000€ / E.E.Z=E**

MURGOITIO AUZOA: Berreraikitze baserria lurzorugaz. **290.000 €**

//IURRETA

FAUSTE AUZOA: Baserria. 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Ganbara. Lurzorugaz. **300.000 € / E.E.Z=G**

OROZKETA AUZOA: 4 logela, 2 sukalde, egongela eta 2 komun. Terraza. Lursailagaz. **LEHEN 650.000 € / ORAIN 595.000 € / E.E.Z=E**

OROZKETA AUZOA: 4 logela, 2 sukalde, egongela eta 2 komun. Terraza. Lursailagaz. **LEHEN 650.000 € / ORAIN 595.000 € / E.E.Z=E**

//MATIENA

TRAÑABARREN: 3 logela, sukaldea, despentsa, egongela eta bainugela. 2 balkoi. Igogailua. Ganbara eta garajea. **LEHEN 220.000 € / ORAIN 185.000 € / E.E.Z=E**

TRAÑABARREN: 3 logela, sukaldea, despentsa, egongela eta bainugela. 2 balkoi. Igogailua. Ganbara eta garajea. **LEHEN 220.000 € / ORAIN 185.000 € / E.E.Z=E**

//OTXANDIO

ARTEKALEA KALEA: 4 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. **60.000 € / E.E.Z=G**

//Durango

SAN AGUSTINALDE KALEA: 2 logela, sukaldea, despentsa, egongela eta komuna. 2 balkoi. **200.000 € / E.E.Z=F**

Eskelak jartzeko: 946 816 558
edo anboto@anboto.org

Eskela mota guztiak

- Anboto paperean + anboto.org-n: 100€ (Anboto txartela dutenentzat 90€)
- Paperean: 60€ (Anboto txartela dutenentzat 50€)
- Webgunean: 60€ (Anboto txartela dutenentzat 50€)

Botikak	
BARIKUA, 16 · 09:00-09:00	RUIZ, JUAN El Alto-Bide Zahar 14 - ZORNOTZA
ETXEBARRIA Montevideo etorb. 2. - DURANGO	09:00-22:00
RUIZ, JUAN El Alto-Bide Zahar 14 - ZORNOTZA	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
09:00-22:00	ASTELEHENA, 19 · 09:00-09:00
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO	GAZTELUMENDI J.A. Abasolo 2 - DURANGO
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA	GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - ZORNOTZA
SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA	09:00-22:00
ZAPATUA, 17 · 09:00-09:00	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
MUGICA Andra Maria 9 - DURANGO	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
RUIZ, JUAN El Alto-Bide Zahar 14 - ZORNOTZA	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
09:00-13:30	MARTITZENA, 20 · 09:00-09:00
BALENCIAGA Ezkurdi plaza 8 - DURANGO	IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - IURRETA
BAZAN DIAZ Uribarri 5 - DURANGO	GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - ZORNOTZA
SARRIA Sasikoa 17, DURANGO	09:00-22:00
CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - DURANGO	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
GAZTELUMENDI J.A. Abasolo 2 - DURANGO	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
NAVARRO Artekalea 6 - DURANGO	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
UNAMUNZAGA Muruetatorre 2C - DURANGO	EGUAZTENA, 21 09:00-09:00
DE DIEGO Intxaurren 22. - DURANGO	SARRIA Sasikoa 17, DURANGO
JAIO-ABENDIBAR Errekakale 6. - ELORRIO	GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - ZORNOTZA
FARMAZIA MATIENA Trañabarren 15. - ABADIÑO	09:00-22:00
GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - ZORNOTZA	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - ZORNOTZA	EGUENA, 22 · 09:00-09:00
09:00-14:00	UNAMUNZAGA Muruetatorre 2C - DURANGO
IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - IURRETA	GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - ZORNOTZA
09:00-22:00	09:00-22:00
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
DOMEKA, 18 · 09:00-09:00	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
BALENCIAGA Ezkurdi plaza 8 - DURANGO	

Zorion Agurrak



**GOZATU
GOZOTEGI-OKINDEGIA**

Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozotegia

Zorionak, **Nile (843. alea)**! Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9 an.



Zorionak, **Markel**, zure hirugarren urtebetetzean. Mosu potolo bat Mikel, Ane eta Jonen partez.



Zorionak, **Ane**! Besarkadak eta mu-
xak debekatu dizkiguten garaiotan
28. urtebetetze ederra opa dizugu.
Ilargiraino eta buelta maite zaitugu!
Zure familia guztiaren partez.



Gure txikitxu politteri txokolatez-
ko mosu handi bat aitte, Aretx
eta aman partez! Maite zaitugu,
bihotza!



Zorionak, **Giller**!
Aske sentitu, aske izateko,
mundu zoro hontan, zoro ederrena
zarela!
Elkarrekin beti!
Lagunak



Zorionak, **Intza**! Dagoeneko 12
urte bete dituzu. Ondo ondo pasa
eta topera disfrutatu. Mosu potolo
bat etxekoan partez!



Mila kilo zorion gure bihotzeko lagun
kuttunari! 27 udaberri lorategiko
lilirik politenari! Egun zoragarria
pasau! Asko maite zaitugul! Zure
kuadrillako tiabuenak.



Apirilaren 6an **Iparrek** 10 urte egin
ditu eta **Paulek** 7 urte egingo ditu
apirilaren 9an. Zorionak bixoi etxe-
koen partez eta jarraitu gure bizitza
alaitzen!



Zorionak, **Naia**! Zurekin dana da
barre algara! Asko maite zaitugu!
Asko disfrutau egune. Musu potolo
bat Arrianditik ta beste bat Jonen
partez.



Zorionak, **Txaber**! Aitaren eta guz-
tion partez. Maite zaitut... infinito!

Eguraldia

ZAPATUA 🌧️ 11 / 4°	ASTELEHENA 🌧️ 18° / 7°	EGUAZTENA 🌧️ 18° / 7°
DOMEKA 🌧️ 15° / 2°	MARTITZENA 🌧️ 15° / 7°	EGUENA 🌧️ 21° / 8°

GAER DESINFEKZIOAK

Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:
LABEZOMORROAK, INURRIAK,
JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK,
ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxe: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ

“Nagusienek diote gure gaztak umetako zaporeak gogorarazten dizkiela”

Lorena Costasek gazta freskoa eta gazta ondua egiten ditu ahuntz-esneagaz; Otxandion 100 bat ahuntz ditu, eta kopuru horri eutsi gura dio, produktuaren kalitatea zaintzeko



**Lorena Costas
Magunazelaia**
Otxauntz gazta
OTXANDIO | 1986

OTXANDIO • AITZIBER BASAURI
Urte bi dira Lorena Costasek Otxauntz proiektua gorpuztu zuela, horretarako lursaila erosteko aukera sortu ondoren. Eta, iaztik, ahuntz-esneagaz egindako gazta egiten du. Durangon, Zornotzan, Abadiñon, Arratian eta Gasteizen ditu salmenta puntuak. Ahuntzai-Euskal ahuntz-esne produktoreen elkarteko kidea da Costas. Antxumeak ere saltzen ditu.

Zelan heldu zenion erronkari?

Senarrari eta bioi asko gustatzen zaigu baserri mundua, eta argi genuen alabei bizitzeko modu hau eskaini gura genielako, naturagaz kontaktuan. Bada, alaba nagusia jaiota, eta bigarren bidean zela, pausoa ematera ausartu ginen. Lan handia dago, gogorra da, baina as-

ko gustatzen zait. Gainera, lana eta familia bateratzeko aukera ematen dit. Etxekoen eta gertukoen laguntza dut.

Zergaitik ahuntzak?

Asko gustatzen zaizkigu eta Euskal Herrian ahuntz-ustiapen gutxi dago. Ahuntz-esneagaz egindako gazta oso interesgarria da, desberdina, eta apustu ona izan zitekeela pentsatu genuen. 2019an ekarri genituen lehenengoak, Orduñatik, lau hilabetegaz, titia kentzera. Eta hamar bat hilabete izan genituen hazten, lehenengo erditzera arte. 50 bat buru genituen, baina gaztandegia prest ez zegoenez, esnea saltzen hasi ginen. Bigarren erditzerako (joan zen urrian) gaztandegia prest genuen eta gaztagaz hasi ginen.

Erraz gobernatzen dira ahuntzak?

Bai. Mantsoak dira, ikusmin handia dute eta lotsarik ez. Bihurrike-riaren bat egin dezakete, baina hori ere dibertigarria da. Azpiegitura ondo prestatu behar da, salto egiten dutelako, ihes egin dezaketelako.

100 ahuntz dituzue eta kopuru horri eutsi gura diozue.

Basamortuko klimakoak dira eta kortan denbora asko ematen dute. Horrek egonkortasun polita ematen du: hamar hiletan ematen dute esnea, eta hile bian antzu daude. Orduan prestatzen dugu erditze-aurrea, larreratu egiten ditugu (udarako programatzen dugu). Animaliak eta produktua mimatzea gustatzen zaigu, eta ustiapen kopurua erabilerraza izan behar da. Denak ezagutzen ditut. Horrek

kontrol sentzazioa ematen dit eta haietaz disfrutatzeko aukera.

Gazta freskoa egiten hasi zineten?

Bai. Oso suabea da, krematsua. Ia ez du laktosarik eta digestioari laguntzen dio. Ia ez du loditzen. Bezero nagusienek diote gaztak umetako zaporeak gogorarazten dizkiela. Eskuz egindako produktu naturala da, oso gustukoa. Gazta ondua errulo antzekoa da, eta oskol jangarria du. Esne guztia pasteurizatzen denez, 30-40 egunetara saltzen dugu.

Ahuntz-esnea oso esne gozoa da. Osasungarriena. Amaren bularreko esnearen antzekoena”

Km0 kontzeptuaren alde egin duzue.

Bai. Oso garrantzitsua da produktua zuzenean ematea. Txikiak izanik, ahalegin hori egin behar dugu aukerei eusteko. Askoz hobeto saltzen da, eskusiboagoa da, eta jendeak hori baloratzen du. Gure produktua baloratzen duten dendak topatzea garrantzitsua da.

Harrera ona izan duzue?

Oso kontsumitzaile fidelak ditugu, eta oso pozik gaude. Euskal Herrian egindako produktu desberdin bat da eta eskaintza hori eskertzen du jendeak. Ahuntz-esnea eta horregaz egindako gazta fuertegiak direla dago zabaldua, baina ez da egia. Oso esne gozoa da. Osasungarriena. Amaren bularreko esnearen antzekoena.

Zeintzuk helburu dituzu?

Pausoz pauso joatea. Produktua kontrolpean izatea, formakuntzagaz eta Leartiker zentroagaz lanean.

Zer aukera ematen ditu zuen gaztak?

Hasierako plater zein postre lez jan daiteke. Gozoagaz, entsaladan edo ogi txigortuagaz, laban. Okelagaz, barazkiekin edo gratinatuta ere bai.

Porruak ere eskaintzen dituzu.

Otxandion porru eta aza bereziak hazten dira, lurrugaitik eta dagoen hezetasunagaitik. Izotza edo elurra hartu duen porruak askoz ere balio handiagoa du, samurragoa delako.

Lauhortza

Amaia
Ugalde Begoña
Kazetaria



Unga-unga

Paseoan genbiltzala topatu genituen hiru lagunak, eta euren planaren berri eman ziguten; taberna baten bazkaldu zuten, baina leku lasaigo batera mugitzea erabaki zuten arratsaldean, euren berbetan taberna hartan “unga-unga giroa” nabaritzen hasi zirelako. Realak eta Athleticek jokaturako kopako finalaren eguna zen. Futbolaren aitzakian parranda asko bota izan da gure herrian, eta hori gauza normala izan da; normala zen, lehenengo bizitzan bai. Orain, asteburuetako adrenalina dosia oso deskafeinata dute futbolzaleek, eta ulertzen dut horrelako ekitaldi baten beharra izatea: ilusiogarria den zerbait bizi.

Baina pasatu egin zarete. Pasatu egin zara, EITB. Partiduaren aurretik itzelezko publizitate zaparrada jasan behar izan dugu; gurea bai ala bai, Euskaltel, Kaiku, Kutxabank eta Eroski. Kirola lantzen ez zuten saioetan ere gaia aterata, besterik ez zen, giroa berotzen. Eta gero harrিতuta eta eskandalizatuta agertuko zaizkigu Klaudio Landaren tertulian, futbolzale tropak Lezama eta Zubietan kanpoan pilatutakoan.

Batzuetan pentsatzen dut pandemiak zahartu egin nauela, serioago bihurtu nauela. Buruak katakrak egiten dit sarritan: Aste Santuan pandemiari aurre egiteko neurri berriekin Elorrio eta beste hainbat herri itxi zituztelako, Europako turistak etorri ahal izan diren artean. Koparen bueltan izandako jarrerak baino askoz suabeengatik isun potoloak jartzen ari delako Ertzaintza, sarritan handikeriaz eta boterekeriaz.

Nik ere egin gura dut unga-unga apur bat berandu baino lehen, baina ez nago prest. Eta ingurua ere ez dut prest ikusten, komunikabideetatik izu-mezuekin tarte-katuta baietz esaten badidate ere. Asteburu honetan, beste bat.

maristak
Ikastetxea - Durango
etorkizun oso bat

946810058
www.maristak.com

www.maristak.com

Batxilergo, Goi-Mailako Heziketa-Zikloak, Erdi-Mailako Heziketa-Zikloak, Oinarriko Lanbide Heziketa Zikloetarako Sarbide Proba, Enplegurako Formakuntza

Batxilergo Aurrematrikulak
Apirilak 12tik 23ra

ATE IREKIAK
Apirilak 21
LH eta Batxilergoa
Asteazkena 18:00-20:00

ateirekiak.maristak.com